



01

PAPELES
DE ECONOMIA
SOLIDARIA
EKONOMIA
SOLIDARIOAREN
PAPERAK

Ekonomia soziala, enpresa soziala eta ekonomia solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera

Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana
Enekoitz Etxezarreta Etxarri
Luis Guridi Aldanondo

Ekonomia soziala, enpresa soziala eta ekonomia solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera

Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana
Enekoitz Etxezarreta Etxarri
Luis Guridi Aldanondo

Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana EHUko irakaslea, REAS Euskadiko lankidea eta HEGOAKo kidea (Euskal Herriko Unibertsitateko Garapen eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Institutua: www.hegoa.ehu.es).

Enekoitz Etxezarreta Etxarri EHUko irakaslea eta GEZKIKo kidea (Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Sozial eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua: www.gezki.ehu.es).

Luis Guridi Aldanondo EHUko irakaslea eta HEGOAKo kidea (Euskal Herriko Unibertsitateko Garapen eta Nazioarteko Lankidetzari buruzko Institutua: www.hegoa.ehu.es).

Laguntzailea:



Ekonomia soziala, enpresa soziala eta ekonomia solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera
Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana
Enekoitz Etxezarreta Etxarri
Luis Guridi Aldanondo

Ekonomia Solidarioaren Paperak
Papeles de Economía Solidaria
1 zenbakia
2009ko ekaina

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Soliarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria
Ekain Kobak 3, 1 • 48005 Bilbo
Tel.: 944 160 566 • Faxe: 944 156 319
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

L.Z.: Bi-2670-09

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Labayru Institutua

Inprimaketa: Lankopi, S.A.



Aitortu-Ez merkataritzarako-Partekatu baimen beraren arabera 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau beزالako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/deed.eu>

Laburpena

Lan honek ekonomia sozialaren kontzeptuaren inguruko nahaspila kontzeptuala ahal den neurrian argitzea du helburu nagusi. Azken hamarkadotan, zenbait eratako enpresa-esperientziak hedatu dira, jatorrizkoaren antz handia duten kontzeptuekin. Hori dela-eta, behin eta berriro berrikusi behar izan da ekonomia sozialaren kontzeptua bera. Hartara, sarrera laburraren ondoren, zenbait kontzeptu aztertuko dira bigarren atalean; esate baterako, ekonomia soziala, *non-profit organizations*, enpresa soziala edo ekonomia solidarioa. Hain zuzen ere, esparru partekatu zabaletan bat datozen arren, oso desberdinak dira beste alderdi batzuei begira. Hirugarren kapituluan, ordea, kontzeptuen arteko azterketa egingo da, elkarguneak zehazteko eta irizpide bereizgarriak ezartzeko. Azkenik, laugarren atalean, sintesirako zenbait proposamen planteatuko dira, azaldu nahi duen errealitate anitza biltzeko gai den kontzeptua eragilea izan dadin. Azken batean, lan honek kontzeptu bakoitza testuinguruan kokatu eta zehaztu egin nahi du, eta hizpide dugun kontzeptuaren balio eraldatzailea desnaturalizatu edo edukirik gabe utzi dezaketen joeren inguruan autoreen ardura nabarmendu nahi ditu.

Lan hau autoreek eurek 2008ko martxoaren 27tik 29ra Bilbon egindako Ekonomia Kritikoari buruzko XI. Jardunaldietan aurkeztutako txostenean dago oinarrituta. Hona hemen izenburua: *¿De qué hablamos cuando hablamos de Economía Social y Solidaria? Concepto y nociones afines.*

Aurkibidea

1. Sarrera eta testuingurua	7
2. Berrikuspen kontzeptuala	9
2.1. Ekonomia soziala	9
• Ohiko azalpena: kontzeptua, parte-hartzaileen ikuspegitik	9
• Hurbilketa zientifiko eta akademikoa: CIRIEC-Internacional, munduko erreferentzia nagusia	10
• Forma juridikotik haratago: ekonomia sozialaren ulermen dinamikoa eta historikoa	11
2.2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo Non-profit Organizations (NPO)	12
2.3. Ekonomia solidarioa	13
• Kontzeptua, errealitatea	13
• Oinarri teorikoak: Latinoamerikako korrontea eta Europako korrontea	14
• Erronkak	17
2.4. Enpresa soziala	18
• Hurbilketa kontzeptuala	18
• Enpresa sozialen hazkuntza eta babes publikoa	20
• Enpresa sozialaren definizioari buruzko eztabaidak	20
3. Azterketa konparatiboa	23
3.1. Kontzeptuen arteko mugak eta elkarguneak	23
• Ekonomia soziala eta Non-Profit Organizations (NPO)	23
• Ekonomia soziala eta enpresa soziala	23
• Ekonomia soziala eta ekonomia solidarioa	24
• Ekonomia solidarioa eta enpresa soziala	25
3.2. Kontzeptu bakoitzaren kokapena definizio irizpide ezberdinen arabera	25
• Legezko irizpidea	25
• Irizpide funtzionala	25
• Irizpide ekonomiko eta finantzarioa	26
• Egiturazko irizpidea	26
4. Laburpen-proposamena	29
4.1. Hirugarren sistema edo hirugarren sektorea	29
4.2. Ekonomia solidarioa, hirugarren sektoretik haratago?	32
5. Azken azalpenak	33
Bibliografia	35

1. Sarrera eta testuingurua

Ekonomia sozialaren kontzeptua antzinatasun handieneko kontzeptua da, aztergai ditugun artetik. Kontzeptu hori XIX. mendeko azterlan ekonomikoetan agertu zen lehen aldiz. John Stuart Mill eta Leon Walras autore ospetsuek termino hori erabili zuten gizarte kapitalista hasiberriak sortutako arazo sozial berriei erantzuteko eraturako erakunde berritzaileak izendatzeko. Hala ere, izendatzeko tresna izatetik haratago, Walrasen ustez ekonomia soziala zientzia ekonomikoaren funtsezko osagaia zen, diziplina ekonomiko horrentzat justizia soziala jarduera ekonomikoaren helburu saihestezina zelako.

Ikuspegi bikoitzaz sortu zen, beraz: batetik, zenbait lortu sozial xede ekonomikoaren berezko osagaitzat hartzea (berdintasun soziala, demokrazia industrial...); eta bestetik, helburu horietarako sortutako erakunde berriak identifikatzea. Hemeretzigarren mendeko ekonomia sozialean, hiru erakunde biltzen ziren, batez ere: kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak. Ohituraren arabera, gainera, hiru erakunde horiek ekonomia sozialaren gunetzat hartu dituzte.

Bere historia berezian, ekonomia sozialak agerpen sozial handia izan du zenbait garaitan; eta gutxiago, beste batzuetan. Lan honen helburua, ordea, ez da horren azterketa xehea egitea. Nolanahi ere, joan den mendeko 70eko hamarkadatik aurrera, ekonomia soziala oro har agertu zen berriro zenbait herrialdetan.

70eko hamarkadako krisi ekonomikoa iritsi zenean, oso mugarri garrantzitsua izan zen Europako ekonomia sozialarentzat. Nazioarteko egoera ekonomikoan gertatutako aldaketan ondorioz, ekonomia sustatzeko eta en-

plegua arautzeko eta sortzeko zuten gaitasuna galdu zuten estatu nazionalak, besteak beste. Enplegurik ez zegoenez eta lan-merkatuan bazterketa-arriskua zegoenez, autoenplegua sustatzeko eta eragile ekonomikoen arteko elkartasuna indartzeko dinamikak sortu ziren. Horrela, premia berriei edo bete ezin ziren premiei aurre egin zieziaieketen, baina batez ere, baliabide gutxien zeuzkaten biztanleen premiak estali zitzaizketen. Horretarako, ingurumena eta materialen birziklapena bultzatzeko ekintzak garatzen zituzten demokratizaziorako nahiz erantzukizunerako izpiritu kooperatiboaz.

Prozesu horiekin batera, ekoizpen-jarduerak gero eta tertziarioagoak dira (osasunarekin, atentzio sozialarekin eta atentzio pertsonalarekin lotutako zerbitzuak, etxeko zerbitzuak...), demografian bilakaera eman da, biztanleak gero eta zaharragoak dira, etxeen profila dibertsifikatu egin da, emakumeen lan-merkatuko jarduerak aurrera egin du edo desberdintasunak areagotu egin dira mundializazio neoliberalerako prozesuaren ondorioz.

Testuinguru horretan, zenbait erakunde-mota agertu dira, era guztietako forma juridikoak eta antolamenduak dituzte (neurri handi batean, herri bakoitzeko legezko aukeren eraginpean daude) eta ez da beharrezkoa ekonomia sozialaren ohiko formekin bat etortzea, baina neurria handia batean, hemeretzigarren mendeko zentzu demokratikoa berreskuratzen dute.

Enpresen eta erakundeen sektore zabal horrek ekonomia publikoaren eta ohiko ekonomia kapitalistaren artean garatzen du bere jarduera. Dena dela, batzuetan, ez da

erraza era batera edo bestera azaltzeko muga zehatzak ezartzea¹. Oro har, merkatu izaerakoak diren eta ez diren hainbat baliabide bateratzen dituzte euren baitan: dohaintza filantropikoak, estatuko dirulaguntzak, merkaturako diru-sarrerak, borondatezko lana eta soldatapeko lana. Oro har, oso modu berezian uztartzen dituzte merkatuaren logika eta elkartasunaren zein birbanaketaren logika. Horrez gain, euren barruko kudeaketa-moduak kapital-enpresenak edo hirugarren sektoreko ohiko auzo-elkarteenak bezalakoak izan daitezke.

Erakunde eta enpresa horien funtzionamendua, gaur egungo gizartean duten lekua, euren funtzionamendua-ren logika sozio-ekonomikoa, euren ekintza politikoa, estatuarekin zein merkatuarekin duten harremana eta gizartea aldatzeko daukaten ahalmena aztertzean, beraien artean lotuta dauden hainbat eta hainbat hausnarketa eta eztabaida sortu dira. Horiek 80ko hamarkadan hasi eta ekonomia sozialean tradizio handiena duten herrialde europarretan nahiz Quebec kanadarrean garatu dira bereziki.

¹ Bi polo horien artean, ekonomia sozialak bere lekua egin du tradizionalki, merkatuko zenbait akatsi aurre egiteko (langabezia itzela, gizarte-bazterketa...). Izan ere, babes sozial publikorako azpiegituran babesik ez daukan merkatu ez-eraginkorra izan da egoera horren erruduna. Azken joera horretatik dator ekonomia sozialaren eta hirugarren sektorearen kontzeptuak bereizgabe erabiltzeko ohitura hedatua. Edonola ere, parekaketa hori nolabait nabartu beharra dago, eta sektore bakoitzaren ezaugarri bereizgarriak nabarmendu behar dira. Kontzeptuari begira, sektorea bi mutur horien artean argi eta garbi kokatu daitekeen arren, eragile eratzailleen ezaugarriak zehazteko irizpideak nolabaiteko zorrotasunaz ezartzeko orduan, ikuspegi teoriko desberdinak dituzten eskolak daude.

2. Berrikuspen kontzeptuala

2.1. Ekonomia soziala

Ohiko azalpena: kontzeptua, parte-hartzaileen ikuspegitik

Adierazi dugun bezala, ekonomia sozialaren kontzeptua erakunde tradizionalenekin lotzen da: kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak. Eurak, zenbait ordezkari-erakundetan bilduta, euren kabuz zedarritu dira, autozehaztu dira, adierazpen eta printzipio-gutunen bitartez.

70eko hamarkadatik aurrera, literatura frantsesera lotutako kontzeptua izango balitz bezala karakterizatu da ekonomia soziala. *Comité national de liaison des activités coopératives, mutuelles et associatives* batzordean elkartutako hiru familiek *Charte de l'économie sociale* eman zuten jakitera 1980. urtean. Bertan azaldutakoaren arabera, honelakoxeak ziren erakunde horiek: "erakunde hauek ez dira sektore publikokoak, euren funtzionamendua zein kudeaketa demokratikoak dira, bazkideen esku-bideak eta betebeharrak berberak dira, euren jabetza-araubidea berezia da, modu berezian banatzen dituzte irabaziak eta ekitaldiko soberakinak erabiltzen dituzte, erakundea hazteko eta bazkideentzako nahiz gizartearentzako zerbitzuak hobetzeko." (Monzón, 2006).

Lehen adierazpen horretatik aurrera, beste batzuk sortu ziren zenbait herrialde europarretan (Belgikan, esaterako, *Conseil Wallon de l'Économie sociale*ekin...). Guztiguztietan, alderdi nagusiak nabarmentzen ziren; esate baterako, euren izaera pribatua, kapital-ekarpenarekin zerikusirik ez zeukan mozkin-banaketa, kudeaketa demokratikoa, zerbitzu komunitarioa...

Kontzeptu-zehaztapen berriena 2002koa da, eta protagonistak eurek egin zuten Europako Kooperatiba, Mutualitate, Elkarte eta Fundazioen Konferentzia Iraunkorrek sustatutako Ekonomia Sozialaren Printzipioen Gutunean. Bertan, honako printzipio hauek agertzen ziren:

- i) Pertsonaren eta helburu sozialaren lehentasuna, kapitalaren aurrean.
- ii) Borondatezko atxikimendu irekia.
- iii) Kideen esku dagoen kontrol demokratikoa (fundazioetan izan ezik, ez dutelako bazkiderik).
- iv) Kide erabiltzaileen interesen eta interes orokorren uztarketa.
- v) Elkartasunaren eta erantzukizunaren printzipioen defentsa eta ezarpena.
- vi) Kudeaketa autonomia eta botere publikoekiko independentzia.
- vii) Soberakin gehienen erabilera, garapen iraunkorren, kideentzako zerbitzuen eta interes orokorren aldeko helburuak lortzeko.

Etengabeko adierazpen horietan oinarrituta, ekonomia sozialeko erakundeak errealitate bereizi moduan ezarri ziren gizartean, eta euren onespun legal zein instituzionala zuten zenbait herrialdeetako arautegietan² nahiz maila komunitarioan (Europako Parlamentuan zein Europako Lantalde Ekonomiko eta Sozialean).

² Frantziako La Délégation interministérielle à l'Économie Sociale adibide aitzindaria da.

Hurbilketa zientifiko eta akademikoa: CIRIEC-Internacional, munduko erreferentzia nagusia

CIRIEC-Internacional, *International Centre of Research and Information on the Public, Social and Cooperative Economy*³, nazioarteko gobernuz kanpoko erakunde zientifikoa da, eta, gaur egun, ekonomia sozialari buruzko azterketen erreferentzia akademiko nagusia da.

CIRIEC-Internacional erakunde zientifikoa denez, iker-tzaileen nazioarteko sarea ere bada. Bertan, bi ardatz nagusiren arabera garatzen dituzte azterketak: ekonomia publikoa eta ekonomia soziala eta kooperatiboa. Gainera, bere ekoizpen akademiko nagusia ospe handiko *Annals of Public and Cooperative Economics*⁴ aldizkari akademikoa da. Aurton ehun urte beteko dituen aldizkari hori ez ezik, lan-koadernoak (*working papers*) eta azterketa monografikoei buruzko liburuak ere argitaratzen dituzte aldian-aldian. Era berean, nazioarteko biltzarrik eta hitzaldiak ere antolatzen dituzte lantzean behin, parte-hartzaileen jakintza bultzatzeko eta errealtitate bakoitzaren zenbait ikuspegi trukatzeko⁵.

Beraz, gure iritziz, CIRIEC-Internacional erreferentziako erakundea da, zenbait tradizioen arteko *ad hoc* elkargunea delako eta tradizio bakoitzean erabilitako azterketa-metodologiak eta kontzeptuak homogeneizatzen dituelako.

Berme instituzional handiena eduki duen definizio proposamen berriena Europako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak (CESEK) onartutakoa izan da. Izan ere, 2006an Chavesek eta Monzónek, CESEK eskatuta, EBko Ekonomia Sozialari buruz egindako ikerketan dago oinarrituta. Lan horretatik, hitzez hitz atera da honako azalpen hau:

Enpresa pribatuen multzoa da, era formalean daude eraturta, erabakitzeke autonomia eta atxikitzeke askatasuna dute eta bertako bazkideen premiei merkatuaren bitartez erantzuteke sortu dira. Horretarako, ondasunak nahiz zerbitzuak ekoizten dituzte eta aseguratu edo finantzatu egiten dute. Bertan, gai-

nera, bazkideen artean egindako mozkin edo soberakin behin-behineko banaketak eta erabakiek ez dute lotura zuzenik boto bana duten bazkideen kotizazioekin edo kapitalarekin. Ekonomia sozialean bertan, erabakitzeke autonomiaz eta atxikitzeke askatasunaz modu formalean sortutako eta familien aldeko ez-merkatuko zerbitzuak ekoizten dituzten erakunde pribatuak ere badaude, eta erakundeok sortu, kontrolatu edo finantzatzen dituzten eragileak ezin dira euren soberakinez jabetu, egon baleude⁶.

Hemen ikusten dugunez, ekonomia soziala bere bi alderdietan azaltzen da orain: merkatuko (erakunde tradizionalenek dihardute bertan) eta ez-merkatuko (irabazi-asmorik gabeko erakundeek dihardute bertan). Azalpen horretan gehiago sakondu baino lehen, 2006koa aurretiazko azterketaren emaitza dela nabarmendu beharra dago eta Barearen zein Monzónen zuzendaritzapean egin zela. Bertan, hain zuzen ere, lehen proposamena egiten zen, "Ekonomia Sozialeko Enpresen Kontu-Sateliteen Eskuliburu Europarra" sortzeko⁷. Eskuliburu horretan, merkatu-erakundeentzako zenbait irizpide baino ez ziren fintzen (kooperatibak eta mutualitateak ziren, batik bat), baina ekarpen handia egin zuen, erakunde horiek Europako Estatu eta Eskualdeetako Kontuen Sistemak (SEC-1995) erabilitako metodologiara egokitzeko. Hori dela-eta, lehen urratsa eman zen, sektorearen legeonespen hedatua lortzeko eta herrialde bakoitzeko sektorea kontabilizatzeko.

Horrela, bada, CIRIECek erabilitako definizio bat dator Nazio Batuetako 1993ko Kontu Nazionalen Sistemarekin (SCN-93) eta Europako Kontu Sistemarekin (SEC-95). Bertan, sektorea bi talde handitan edo azpisektoretan dago banatuta: *merkatuko azpisektorea eta ez-merkatuko azpisektorea*. Xehetasun handiagoz aztertuko dugu talde bakoitza:

a. Merkatuko azpisektorea: bertako erakundeek honako hiru eskakizun hauek bete beharko dituzte derrigorrean:

³ CIRIEC-Internationaleko egoitza nagusia Liejako Unibertsitatean dago (Belgika), eta 13 sekzio nazional daude bertan: 9 europarrak dira (Austria, Belgika, Frantzia, Alemania, Portugal, Espainia, Italia, Suedia eta Turkia); 3, amerikarrak (Argentina, Brasil eta Kanada); eta azkena, Asiakoa (Japonia). Hedapen handia duenez, kontuan hartu beharrekoa bada ere, baieztatu egin beharko litzateke sustrai frankofono nabariko "eskola" dela eta, ikusitakoaren arabera, tradizio frantseseko kontzeptuarekin dagoela lotuta.

⁴ www.blackwellpublishing.com/journal.asp

⁵ Nazioarteko ekitaldi berriena 2007. urtearen amaieran egin zen Kanadako Columbia Britainiarreko Victorian: CIRIECek Ekonomia Sozialaren Ikerketari buruz egindako Nazioarteko Lehen Konferentzia. 2009ko urriaren hasieran, Suedian egingo da Ikerketari buruzko Bigarren Konferentzia.

⁶ Azalpen hori egiteko orduan, Europako Batzordearen Eskuliburuak ekonomia sozialeko enpresen kontu-sateliteak egiteko ezarritako irizpideak hartu dira kontuan. Geroxeago aipatuko dugu eskuliburuak.

⁷ Barea eta Monzón, (2006): Manual para la elaboración de cuentas satélite de las empresas de economía social: cooperativas y mutuas. Europako Batzordea, *mimeo*.

- Bertako bazkideen premiei erantzuteko sortzen dira, hau da, jarduerako bazkideak eta erabiltzaileak dira oro har.
- Merkatuko ekoizleak dira, bertan dihardutelako produktuak prezio esanguratsuetan saltzen eta baliabide gehienak bertatik lortzen dituztelako.
- Soberakinak banatu ditzakete bertako bazkide-erabiltzaileen artean, baina ez bakoitzak jarrirako kapitalaren arabera, norberak garatutako jardueraren arabera baizik.

Sektore honetan, kooperatibak eta mutualitateak daude, baina honako hauexek ere bai: ekonomia sozialeko enpresa-taldeak, lan-elkarteak edo erantzukizun mugatuko sozietateak (betiere sozietatearen kapital gehiena bazkide-langileena bada) edo laneratzeko enpresa asko. Dena dela, badago erakunde bakoitzaren forma juridikotik haratago doan printzipio bereizgarririk: kudeaketa demokratikoa, erabaki-organoetan (pertsonek, boto bat) zein mozkinen banaketan.

b. Ez-merkatuko azpisektorea: era berean, erakunde pribatuak ere sortzen dira ekonomia sozialaren barruan, eta gehienak elkarteak eta fundazioak dira. Hirugarrenei (familiei, etxeei...) zerbitzuak eskaintzen dizkiete, eta merkatuetan saldu dezakete, baina prezioak ez-adierazgarriak izan behar dira ekonomikoki. Euren baliabide gehienak dohaintzen, bazkideen kuoten, dirulaguntzen... bitartez lortzen dituzte, eta bertako kideak ezin izango dira soberakinez jabetu, egon baleude. Europako Kontu Sistemaren arabera (SEC-1995), "etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko instituzioak" dira. CIRIECek salbuespentzat hartzen ditu "gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko" enpresak. Familien aldeko ez-merkatuko erakundeak dira, eta, nahiz eta euren egitura demokratikoa izan ez, lehentasunezko edo interes orokorreko ondasunak hornitzeagatik hartzen dira kontuan.

Kontzepzio tradizionalagoarekin erkatuz gero, proposatutako kontzeptuak ekonomia sozialekoak izan daitezkeen erakundeen aukera zabaltzen duen arren, funtsezko irizpideak eta zenbait ezaugarri bateratu ezartzen dira, sektorea zorrotasunez eta bereizgarritasunez zehazteko asmoz. Hona hemen, labor-labor, funtsezko zazpi ezaugarriak:

i) erakunde pribatuak dira,

- ii) modu formalean antolatuta daude (nortasun juridikoa dute),
- iii) erabakitzeke autonomia dute,
- iv) atxikitzeke askatasuna daukate,
- v) mozkinen behin-behineko banaketa ez dute jarrirako kapitalaren arabera egiten,
- vi) jarduera ekonomikoa garatzen dute eta
- vii) erakunde demokratikoak dira.

Beraz, ekonomia sozialaren kontzepzio hau proposatzen dutenentzat, irizpide bereizgarri nagusia **kudeaketa demokratikoa** da. Gainera, nahiz eta ez-merkatuko erakundeak kontuan hartu, onetsitako jarduera ekonomikoa garatu beharko dute eta modu demokratikoan egin beharko dute (gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko enpresetan izan ezik).

Forma juridikotik haratago: ekonomia sozialaren ulermen dinamikoa eta historikoa

Lerro hauetan berreskuratutako definizio tradizionalak ekonomia sozialeko erakundetzat hartutako hiru familia sozio-ekonomiko handiak aipatu edo kontuan hartzen ditu: kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak.

Hurbilketa hori ikuspegi juridikotik egiten da. Irizpide horrek, hain zuzen ere, errealitate hori identifikatzen eta neurtzen laguntzen du, baina aldi berean, ez du behar besteko lasaierarik, premia sozial berrien erantzun moduan sortutako esperientzia berritzaileak txertatzeko, beti-beti ez direlako aipatutako araubide juridikoetara egokitzen.

Alde horretatik, hertsadura juridiko horren aurrean, autore askok hurbilketa finalistagoa edo funtzionalagoa defendatzen dute, ikuspegia esperientzia horien helbururantz berbideratzeko asmoz, bakoitzaren forma juridikoa edozein dela ere. Irizpide finalista kontuan hartuz gero, ekonomia soziala eta unean-unean aukeratutako forma juridikoa ikuspegi dinamikoagotik ulertu ahal izango ditugu, eta lotura handiagoa izango du garai historiko bakoitzeko testuinguru sozio-ekonomikoarekin.

Hartara, praktikan oinarritutako ikuspegi dinamiko horretatik, lotura-lerro argia marraztu daiteke garai historiko bakoitzaren ezaugarri ekonomiko eta sozialen eta

ekonomia sozialaren barruan nagusi izan den forma historikoaren artean. Argudio-lerro horretan, oso-oso argigarria da Moulaertek eta Aileneik eskainitako hurbilketa historikoa (2008).

Batetik, Bouchard et alen ekarpena (2000) hartzen dute kontuan, eta hiru enpresa-belaunaldi bereizten ditu "ohiko" ekonomia sozialean, eta gerra aurreko aroko hiru krisialdi erantzuten diote. Horrela, XIX. mendearen erdialdean, ekonomia sozialeko enpresen lehen belaunaldi hasiberria sortu zen, eta, batez ere, erakunde mutualistetan zeuden oinarrituta. Izan ere, gremioen babesik ezari aurre egitea zuten helburu, arau lehiakor berriak ezarri eta antzinako lan-arauegia indarrrik gabe utzi zutenean. Lehen belaunaldi horren ondoren, bigarrena etorri zen 1873tik 1895era, eta, bertan, nekazarien kooperatibak eta kreditu-kooperatibak berrindatu ziren, batez ere, ekoizle txikiek elkarketa-formulak behar zituztelako, nekazaritzan nagusi ziren ustiapen estentsiboen finantziarioari aurre egiteko. Azkenik, kontsumo eta etxebizitzaren arloko kooperatiben hirugarren uholea sortu zen 1929-1932ko krisian, langileen zein langabetuen oinarrizko soldata bermatzeko.

Munduko Bigarren Gerra amaitzen denetik 70eko hamarkadara arte, ekonomia sozialeko formak instituzionalizatu egin ziren, ongizate-araubideen zutabe osagarri moduan edo gizarte aldatzeko esperientzia alternatibo moduan. 70eko hamarkadatik aurrera, ekonomia soziala berregokitu egin zen (eta behin betiko sendotu zen), krisi sozio-ekonomiko bikoitza sortzean: "masako ekoizpen-ereduaren" eraginkortasunik eza eta ongizate-estatuaren gainkarga. Horren ondorioz, era guztietako tokian tokiko irabazi-asmorik gabeko erakunde sozial eta enpresa txiki zein ertainak sortu ziren.

Berrikuspen historiko labur hori ixteko, nabarmendu egin behar da ekonomia soziala 90eko hamarkadatik aurrera piztu zela berriro, langabezia-tasak handi-handiak zirelako eta gizarte-babeserako sistemak ahulak zirelako. Hori dela-eta, laneratzeko enpresa eta lan-elkartuko kooperatiba ugari sortu ziren, baina batez ere, gizarte-zerbitzuekin zerikusia zuten sektoreetan⁸.

2.2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo Non-profit Organizations (NPO)

Tradizioaren arabera, "Non-profit Organizations (NPO)" kontzeptua mundu anglosaxoiarekin egon da lotuta, eta AEBetan sortu da. Kontzeptua maila akademiko eta sozialean gizarteratu eta onartu egin da, irabazi-asmorik gabeko erakunde boluntarioek oso zeregin garrantzitsua dutelako toki-garapenean zein zerbitzu publikoen horniduran.

Era berean, ezin konta ahala termino daude sektore hori izendatzeko. Izen bakoitzak, gainera, sektoreko erakunde ezaugarriren bat nabarmentzen du. Zenbait adibide jartzearen, honako kontzeptu hauek erabiltzen dira bereizgabe:

- Karitatearen sektorea (*charitable sector*): erakunde hauen finantziario-iturri nagusiarekin dago lotuta, karitateko dohaintza pribatuak direlako euren finantziabidea.
- Borondatezko lanaren sektorea (*voluntary sector*): erakunde hauek mugitzen duten borondatezko lanaren erabilerarekin dago lotuta.
- Gobernu kanpoko erakundearen sektorea (*Nongovernmental organizations*): erakunde hauek sektore publikotik aparte dihardutela nabarmentzen da.
- Irabazi-asmorik gabeko sektorea (*non-profit sector*): erakunde hauek ez dira irabazi-asmodunak, eta ezin dituzte lortutako mozkinak kontrolaz arduratzen direnen artean banatu.
- Eta abar.

Horri buruzko lan akademiko zabalena *The Johns Hopkins Comparative nonprofit Project* proiektuan egin zen, AEBetako Salomón eta Anheier irakasleen (1997) koordinaziopean. Azterketa zabal horretan, 39 herrialdeko borondatezko lanaren sektorea ikertu zuten, erakundearen tamaina, egitura, finantziario-iturriak eta jardueraren agerian jarri eta kontabilizatzeko eta errealitate hori maila orokorrean hobeto ulertzeko.

Gure aztergaiari dagokionez, lan honetan proposatzen zuten NPO kontzeptua ondo zehaztutako bost ezauga-

⁸ Nabarmendu egin behar da CIRIEC-Internationalek bete-betean landu zituela 90eko hamarkadan sortutako gizarte-arazoak. Horretarako, nazioarteko taldea eratu zuen, eta honako hauxe zuen aztergai: "Elkarrekin enpleguaren zein ongizate-estatuaren krisiari emandako erantzunak". 1993an hasitako azterketa-lerro horretan oinarrituta, beste bi lan-lerro proposatu ziren: lehenengoak lotura estua zeukan elkarrekin gizarte-baztertuak laneratzeko prozesuan zeukatzen zereginarekin, eta honako hauxe zen bere izenburua: *Inserción y Nueva Economía social* (1998). Bigarren lerroak, ordea, gizarte-zerbitzuen ekoizle edo hornitzaile moduan aztertzen zituen elkarrekin, eta honako hauxe izan zen argitaratutako liburuaren izenburua: *Economía social y Servicios sociales* (2001).

rriren arabera zegoen mugatuta. Honako hauexek dira borondatezko lanerako erakundeak:

- i) Modu formalean eraturako erakundeak izan behar dira.
- ii) Pribatuak izan behar dira, hau da, botere publiko-etatik aparte jardun behar dute, nahiz eta dirulaguntza publikoak jaso.
- iii) Autonomoak izan behar dira, eta autogobernura-ko gaitasuna eduki behar dute.
- iv) Ez dute irabazi-asmorik eduki behar, hau da, ez dute merkaturatzeagatiko mozkinik lortu behar edo, lortuz gero, ezin dituzte kide sortzaileen edo zuzendaritzako kideen artean banatu.
- v) Boluntarioen partaidetza izan behar dute. Beraz, atxikimendua askea izan behar da, baina aldi berean, boluntarioak egon behar dira erakundeetan.

Kasu honetan, agerikoa da printzipio bereizgarria *irabazi-asmorik eza* dela, ez delako sarrera eragozten euren zerbitzuak nolabait merkaturatzen dituzten borondatezko lanerako erakundeei, betiere euren soberakin hipotetikoak banatzen ez badituzte. Horra hor mugarrria, irabazi-asmorik gabeko erakundeek zeharkatu beharreko uztia.

Euren nortasun juridikoari begira, erakunde horiek elkar-teak eta fundazioak izan ohi dira, eta zenbait eratara txertatzen dira kontabilitate nazionalean. Nazio Batuek *Kontu Nazionalen Sistemako Irabazi-asmorik Gabeko Erakundeei buruzko Eskuliburua* argitaratu dute. Bertan, *The Johns Hopkings Center* zentroak ere parte hartu du.

2.3. Ekonomia solidarioa

Kontzeptua, errealitatea

Ekonomia solidarioa ekonomia sozialaren enbor beretik sortzen da, eta harreman ekonomikoak parametro desberdinetatik berrezartzeko ahalegina da. Kapitalaren logikaren aurrean, esparru publiko zein pribatuen merkantilizazio handiagoaren aurrean eta ahalik eta mozkin handienaren bilaketaren aurrean, ekonomia solidarioak justizian, lankidetzan, elkarrekotasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako ekoizpen, banaketa, kontsumo

eta finantziario harremanak eratu nahi ditu. Kapitalaren eta bere metaketaren aurrean, ekonomia solidarioak pertsonak eta euren lana jartzen ditu sistema ekonomikoaren erdigunean, eta beti-beti pertsona guztien ongizatearen eta planetako bizitzaren ugalketaren zerbitzura dagoen zeregin instrumentala ematen die merkatuei.

Ekonomia solidarioaren arloko pentsalari nagusietakoa den Marcos Arrudaren esanetan (2005), *“gizabanakoak izaki sozialak direnez, ekonomia solidarioarentzat giza-kiak ez dira bakarrik aberastasun ekonomikoaren ekoizleak eta sortzaileak, aberastasun materialaren jabeak, baliabide naturalen erabiltzaile-kideak eta naturaren babesaren arduradun-kideak ere badirelako. Nagusi den sistemaren ondorioz, aberastasuna gutxi batzuen esku dago, eta jende gehienak ez du eskubiderik. Ekonomia solidarioak guztiontzako behar besteko aberastasun materiala ekoizti eta banatu egin nahi du, pertsona zein gizarte guztiontzako eta planeta osoarentzako garapen autokudeaturako baldintza iraunkorrak sortu ahal izateko.”* (gure itzulpena).

Ekonomia solidarioaren terminoa kontzeptzio eta ikuspegi teorikoen, errealitate sozio-ekonomiko eta instituzionalen eta enpresa nahiz elkarte jarduketan multzo heterogeneoa da. XX. mendeko azken laurdenetik aurrera, hain zuzen ere, ekonomiak eta prozesu ekonomikoek gaur egungo gizarteetan duten zeregina ulertzeko modu desberdinarekin bat egiten dute. Da Rosek (2007) adierazten duenez, zenbait alderdi dituen fenomeno konplexua da ekonomia solidarioa: ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak eta ingurumen-arlokoak. Horrez gain, “bizi-proiektu etikoa” osatzen dute.

Horrelako esperientzia asko ez dira berriak, eta ohiko ekonomia sozialeko elementu diskurtsiboak, forma instituzionalak eta antolaerak hartzen dituzte, aurreko epigrafeetan karakterizatu dugun moduan. Horrez gain, ikuspegi geografikotik, “lehen munduko” zein “hirugarren munduko” herrialdeetan daude kokatuta, batean zein bestean duten garrantzi ekonomikoa desberdina den arren eta eskualdeko zein historiako berezitasunen araberrako ezaugarriak dituzten arren.

Ekonomia solidarioko esperientzia praktikoak prozesu ekonomikoko arlo guztietan azaltzen dira⁹. Ekoizpenaren arloari dagokionez, ekonomia solidarioak ekoizpena

⁹ Askunzek (2007) eta Martinezek eta Alvarezek (2008) ekonomia solidarioko arloen azalpen bikaina eskaintzen dute, eta eurekin lotutako sare eta erakunde nagusien bilduma egiten dute.

antolatze modu alternatiboak eskaini nahi ditu enpresa solidarioetan oinarrituta. Enpresa horien forma juridikoak eta antolaerak euren herrialdeko edo eskualdeko legegintza-esparruaren eta erakundearen beraren historiaren nahiz jatorriaren arabera aldatzen dira¹⁰. elkartasunean, konfiantzan, lankidetzan eta talde-lanean oinarritutako printzipioak hartzen dituzte kontuan, eta pertsoneri zein euren banakako eta taldekako ongizateari ematen diete lehentasuna, ekintzaitzaren errentagarritasun ekonomikoa bilatu beharrean.

Merkantzien zirkulazioaren arloan, ekonomia solidario-ko jarduketek bidezko eta berdintasunezko truke-harremanak sustatzen dituzte pertsonen eta herrien artean, eta, nazioarteko merkataritza-harremanen esparruan, bidezko merkataritzaren mugimenduan gauzatzen da hori guztia. Modu berean, ingurune hurbiletan, ekonomia solidario-ko enpresek ekoiztutako produktuak eta zerbitzuak merkaturatzeko eta banatzeko sareen esperientziak daude. Batetik, merkatu horiek balio-kate solidarioak sortu nahi dituzte, hornikuntzarako zein truke-rako kanal alternatibo eta enpresen sare trinkoak sendotzeko eta ekonomia solidarioaren antolaera eta filosofiaren arabera ekoiztutako ondasunen nahiz zerbitzuen lehentasunezko irteera sustatzeko. Aldi berean, kate solidario horiek loturak ezarri nahi dituzte kontsumo arduratsurako sareekin, hau da, kontsumo-aukerak egitean gizarte-eraldaketarako egintzak garatzen dituzten herritarrekin. Horretarako, herritar horiek kontsumo etiko, ekologiko eta solidarioa sustatzen dute, eta kontsumo konpulsiboaren nahiz ondasun-metaketa-aren arabera giza nortasunaren eraketa jartzen dute kolokan. Logika bera kontuan hartuta, ekonomia solidarioak instituzio publikoekin lan egiten du, ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaile moduan erosketa publikorako prozesuetan irizpide etikoak eta sozialak ezarri ditzaten.

Finantza-arloari dagokionez, ekonomia solidarioa finantza etikoen eta finantza alternatiboaren esperientziekin dago lotuta. Arlo horretan, hainbat esperientzia ga-

ratu dira; esate baterako, monetarizatu gabeko truke-jardueren sustapena (truke-elkarteak, denbora-bankuak), ordainbide alternatiboaren edo diru osagarrien (tokian tokiko diruen) bidezko saiakuntza eta finantza-bitartekaritzarako proposamen integralak, banka tradizionalako produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko, baina ikuspegi etikotik eta eraldaketa sozialaren ikuskeratik egiteko (banka etikoa)¹¹.

Oinarri teorikoak

Kontzeptualizazio teorikoaren ikuspegitik, egindako esperientziei buruzko hausnarketa sistematizatzen duten diskurtsoak egiteko eta zabaltzeko tradizioa oraindik eskasa den arren, autore gehienak (Da Ros, 2007; Chavez eta Monzón, 2006; Guerra, 2004; Coraggio, 2004) bat datoz oinarritzko bi ikuskera bereiztean: ikuskera europarra (batez ere, jatorri frantses eta belgikarrekoa da, nahiz eta Quebecekin lotura estua eduki) eta ikuskera latinoamerikarra (Txilen, Argentinan eta Brasilen garatu da, batez ere). Bi ikuskerek antzekotasun handiak dituzte, baina desberdintasun adierazgarriak ere badituzte, orain ikusiko dugun bezala.

Latinoamerikako korrontea

Ekonomia solidarioaren kontzeptua laurogeiko hamarkadaren hasieran agertu zen Latinoamerikan, Txileko Luis Razzeto ekonomialariaren idatzien eskutik¹². Joan den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan, termino horren erabilera apurka-apurka orokortu da, nazioarteko sareekin¹³ eta laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera Amerikako kontinentean egindako sinposium nahiz hitzaldien bitartez¹⁴.

Bestetik, herri-ekonomia edo lanaren ekonomia terminoak ere erabili ohi dituzte Latinoamerikan. Askotan, lehenengoaren sinonimo moduan erabiltzen dira, Argentinako Jose Luis Coraggio¹⁵ autorearen horren aurkakoa izan arren eta termino-aukera ugaria erabiltzea proposatu arren, erabilitako kontzeptuak zehatzagoak izan daitezten.

¹⁰ Ekonomia sozial tradizionalako ohiko formak daude (mutualitateak, kooperatibak, fundazioak), bai eta laneratzeko enpresa berriagoak ere. Horrez gain, honako hauexek ere hartu behar dira kontuan: enpresa komunitarioak, elkarre-enpresak, ekoizle edo kontsumitzaileen plataformak, enpresa berreskuratuak, lan-elkarteak eta Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako herrialdeetako ohiko ekintzaitzeta ez-formalak.

¹¹ Banka etikoaren FIARE proiektuan, proposamen horiek Espainiako estatuan nola egituratzen diren azaltzen da. www.proyectofiare.org

¹² Luis Razzetok elkartasunaren ekonomia kontzeptua garatzen du "Economía de la Solidaridad y Mercado Democrático" trilogian.

¹³ Honako sare hauek, batez ere: RIPESS (Ekonomia Soziala eta Solidarioa sustatzeko Kontinente arteko Sarea: www.ripest.net), RILESS (Ekonomia Sozial eta Solidario-ko Ikertzaile Latinoamerikarren Sarea: www.riless.org) eta ALOE (Alianza para una Economía Responsable, Plural y Solidaria [Ilehengo Polo de Socio-Economía Solidaria]: <http://aloe.socioeco.org>)

¹⁴ Euren artean, honako hauexek nabarmendu behar dira: Perun (1997 eta 2007), Quebecen (2001), Senegalen (2005) eta, azkena, Luxenburgon (2009) "Elkartasunaren globalizazioari" buruz egindako nazioarteko lau topaketak eta RILESSek egindako bi topaketa latinoamerikarrak. Azkena, hain zuzen ere, Ekuadorren egin zen 2007. urtean.

¹⁵ Horri dagokionez, bere aurkezpena ikusi Elkartasunaren globalizazioari buruzko nazioarteko II. topaketan, Quebec, 2001eko urriak 9-12.

Ekonomia solidarioak Amerikako kontinentean dituen adierazpen teorikoak aztertzean, Guerrak (2004) eta Da Rosek (2007) hiru iturri nagusi bereizten dituzte. Lehenago aipatutako Razzetorena da. Autore horren esanetan, ekonomia solidarioak oso orientazio kritikoa eta eraldatzailea du, gaur egungo ekonomiako egitura handien, antolaeren eta ekintzabideen aurrean. Ikuspegi horretatik, diziplina teorikoa da, eta, beretzat, elkartasuna, lankidetzaren nahiz elkarrekikotasuna dira errealitate sozialean benetan dauden indar ekonomikoak, eta gizarte-ari begira eraginkorrak bezain egokiak diren ekonomia-egikera berriak sortzeko aukera dute (Razetto, 2007).

Razzetoren iritziz, ekoizpenaren arloan, ekonomia solidarioaren arrazionaltasunaren elementu bereizgarria lanak kapitalaren aldean duen lehentasuna da, baina batez ere, "C faktorearen" kategoria antolatzailea delako¹⁶. Banaketaren arloari dagokionez, diru-balioak ez ezik, elkarrekikotasunaren logikak, birbanaketak eta lankidetzak ere zehazten dituzte ekoizpen-baliabideen, ondasunen eta zerbitzuen zirkulazioa eta esleipena. Azkenik, kontsumo-ereduari dagokionez, Razzetok azpimarratu egiten du gaur egungo kultura aldatu egin dela premien betearazpenaren arloan. Horren ordez, giza premien betearazpenaren ikuspegi integralagoa sustatzen da, austeritatearen zein sinpletasunaren aldeko aukera, kontsumo-ereduaren eta ingurune naturalaren zainketaren uztarketa, bidezko trukeak eta, batzuetan, ekoizpenaren zein kontsumoaren arteko hurbiltasun handiagoa.

Latinoamerikako ekonomia solidarioaren bigarren iturria Latinoamerikako Langileen Kooperatiben Konfederazioan (Colacoten) sustatutako topaketetan dago. Guerrak adierazi bezala, erakunde hori teoria ulergarria sortzen saiatu ez den arren, ahalegin handia egin du, gai hori giro kooperatibistetan zabaltzeko. Hori dela-eta, elkartasunaren ekonomia Latinoamerikako Langileen Zentralaren (CLATen) garapen-estrategian txertatu da.

Azkenik, nahiz eta Argentinan, Venezuelan, Ekuadorren edo Uruguain ahalegin handia egin dutela onartu, Guerraren ustez Brasil bera da ekonomia solidarioak kontinentean duen hirugarren iturria. Herrialde horretan, hain zuzen ere, ekonomia solidarioaren aldeko indar asko metatu dira, Langileen Zentral Bateratua inplikatu

delako eta gaiari buruzko ikerketa-lerroan instituzio akademikoaren sare handia sortu delako (Unitrabalho). Gutxienez, hiru unibertsitate garrantzitsuk egin dituzte ekarpenak eraketa teorikora, eta estaldura ematen diete Latinoamerikako pentsalari nabarienei. Euren artean, Marcos Arruda eta Paul Singer daude.

Alde horretatik, Brasilgo esperientzian daude jarrera muturrekoenak eta diskurtso politikoena. Singer (2007) edo Gaiger (2007) autoreen iritziz, ekonomia solidarioa gizar-tea eraldatzeko proiektua da, eta nagusi diren jarduketak eta kapitalismoa ez bezalako ekonomia alternatiboa eratu nahi du. Laburbilduta, Guerrak ondotoxio dienez, autoreen arteko jarrera desberdinetatik haratago, honako lotura hau dute: "oso era kritikoa irakurtzen dituzte gaur egungo egitura ekonomikoak, eta autokudeaketa zein elkartegintza berreskuratzen dituzte herritarren artean. (...) Agerikoa denez, korrante hau eta bertako esperientziak neoliberalismoaren eta kapitalismoaren kontra-erreferentziak dira, euren defendatzaileen ustetan."

Latinoamerikako korranteetatik egindako ibilbidea amaitzeko, laugarren iturria gehitu beharko genuke Guerrak proposatutako aurreko hiruretan. Ekonomia solidarioari buruzko nazioarteko sareek gero eta garrantzi handiagoa dute, eta Latinoamerikako herrialdeak erreferentzia garrantzitsua dira bertan. Gaiari buruzko gaur egungo pentsaera handia sare horiek antolatutako ekitaldi eta bilertan sortzen ari da. Horri buruzko agiri eta literatura ugaritik haratago, esperientzia ekonomiko eta antolaera zehatzak aurkeztean, beste era bateko ekonomia sortu daitekeelako utopiaren sentsazioa sendotzen ari da. Horrez gain, topaketa horien bidez, ekintza-agendak zehazten dituzte, Latinoamerikan ekonomia solidarioa sustatzeko asmoz. Geroago, gai hori aztertuko dugu berriro.

Europako korrantea

Europar, ekonomia solidarioaren kontzeptuaren sorrera eta bilakaera oso lotuta daude ekonomia sozialaren eta bere ohiko antolaeren zein enpresa-egituren garapenerekin. Enpresa kooperatiboak, mutualitateak eta elkarteak apurka-apurka instituzionalizatu dira Europan, XIX. mendean eta XX. mendean sortu zirenetik. Horren ondorioz, batzuetan kolokan jarri dira erakunde horien funtsezko balio bereizgarriak.

¹⁶ "C faktorea" hementxe azaltzen da: laneko lankidetzan (lan-indarraren eraginkortasuna areagotzen du); jakintzen eta informazioen erabilera partekatuan (horren ondorioz, gizar-te-sormenerako elementu garrantzitsua sortzen da); erabakiak hartzeko prozesu kolektiboan; enpresako osagai funtzionalen integrazio funtzional hobean (horrela, gatazkak eta kostuak murrizten dira); elkarbizitzako eta partaidetzako premien betearazpenean (hartara, enpresaren jardunak bertako kideei eskaintzen dizkie diruaren aldetik kontabilizatu ezin diren zenbait etekin gehigarri; hala ere, benetakoak eta eraginkorrak dira); enpresetan inplikaturako subjektuen garapen pertsonalean (nortasun desberdinen arteko komunikazioaren eta trukearen ondorioz sortutakoak...).

Hartara, mutualitateei dagokienez, estatu bakoitzaren ñabardura guztiak kontuan hartuta, gizarte-aseguruak orokortzean, erakunde "para-estatal" bihurtu dira, eta borondatezko kidetza zein botere publikoekiko independentzia galdu dituzte bidean. Zenbait kooperatiba merkatu-ekonomian sartu direnez eta merkatuetan kapitaldun enprekin lehiatzen direnez, euren helburu zein antolaren balantzea desorekatu egin da. Di Maggioren eta Powellen (1983) "merkatu-isomorfismoa" izeneko prozesuaren bitartez, kooperatiba horiek kapitalaren logikara eta jabeentzako itzulketara hurbildu dira, kooperatibismoaren sorrera-filosofiaren kaltetan¹⁷.

Ekonomia sozialeko forma instituzionalizatu horien aurrean, zenbait autorek eta, euren artean, Frantziako Jean-Louis Laville soziologoak "ekonomia sozial berria" terminoa sortu zuten, 70eko hamarkadatik aurrera Europan sortutako erakunde eta enpresak izendatzeko. Apurka-apurka, kontzeptu horrek gero eta gehiagotan erabiltzen den ekonomia solidarioaren kontzeptuarekin bat egin du. Hori dela-eta, Latinoamerikan bezalako eztabaidak sortu dira, lehen azaldu dugunez.

Ekonomia solidarioaren kontzeptualizazioak ikuspegi bikoitza duenez, batzuetan kontzeptuak partekatzen dituzten pentsaera desberdinak sortu dira, nolabait esateko. Horren ondorioz, nolabaiteko nahaspila kontzeptuala sortu da, eta terminoak ikaragarri ugaritu dira¹⁸. Izan ere, sinonimo moduan erabili ohi diren arren, baliteke hain sinonimoak ez izatea.

Lehen ikuspegia perspektiba makroan dago oinarrituta. Ekonomia solidarioak ekonomia ulertzeko modu berrian daukan ekarpena ulertzen saiatzen da, ekonomiaren, gizartearen eta politikaren arteko ohiko banaketa ezeztatze eta ekoizpen, banaketa eta kontsumo bideak benetan demokratizatzeko. Lavillek eta Emek (2004) edo Lavillek, Levesquek eta Mendellek (2007) zenbait idatzitan adierazten dutenez, helburu sozialeko jarduera ekonomiko hutsen multzoa ez izatea da ekonomia solidarioaren elementu interesgarrietakoa. Horren ordez, ekonomiaren eta esparru politikoaren kontzeptu orokorrigoan dago oinarrituta. Autore horien iritziz, ekonomia solidarioa eta bere jardunak ekonomia demokratizatzeko modua dira,

herritarrek hartutako konpromisoetan oinarrituta. Perspektiba horretatik, bere baitan gertatzen diren ekimenak dimentsio sozio-politiko eta sozio-ekonomiko bikoitze-tik zehazten dituen ikuskera da ekonomia solidarioa.

Dimentsio sozio-politikotik, ekonomia solidarioko esperientzien bidez, aurrerapausoak eman dira gizartearen demokratizaziorantz, agerikotasuna ematen duelako, ahotsa ematen duelako eta gizarte zibilak sortutako ekimenak dakartzalako arlo publikora, ortodoxia kapitalistaren esparruan arlo pribatuan geratuko lirakeenean. Dimentsio sozio-ekonomikotik, ekonomia ez da merkatura bakarrik mugatu behar, eta Polanyiaren ekonomiako hiru zutabeetan inspiratutako birbanaketaren zein elkarrekikotasunaren printzipioak hartu behar ditu kontuan: merkaturak, batez ere estatuak egindako birbanaketa eta gizarte zibilaren borondatezko dohaintza eta elkarrekikotasuna.

Bestetik, Favreauren (2003) esanetan, ekonomia soziala elkartegintzaren hedapen handiari esker berriro ahal izan da iparraldean zein hegoaldean, sare sozio-ekonomikoen bitartez. Sare horiek, hain zuzen ere, merkaturak eta ez-merkaturak dimentsioak bateratzen dituzte ekoizpen-arlokoak diren eta ez diren jardueren barruan. Era berean, ekonomia demokratizatzeko ikuspegi etikoaren eraginpean daude, eta estatu progresistek edo nazioarteko lankidetzarako zenbait mekanismok eusten diete eta babesten dituzte. Bertan, estatuak eskaintzen ez dituen edo txarto eskaintzen dituen zerbitzu berriak ematen zaizkie pertsonari (oro har, merkataritza-arlokoak ez diren jarduerak dira funtsean), eta jarduera ekonomiko berriak garatzen dira, baztertuak gizarteratzeko edo hondatutako landa edo hiri lursailak biziberritzeko (merkataritza-arloko jarduerak dira, batik bat).

Ikuspegi makro horrek lotura estua dauka eraldaketarako borondatearekin, eta, bertan, ekonomia solidarioa da funtsezko osagaia. Hori dela-eta, erreferente teoriko garrantzitsua da Latinoamerikan, nahiz eta proposamen europarrak latinoamerikarrak bezain muturrekoak izan ez, aldaketei eta eredu kapitalistaren gaitzespenari begira.

Europako ekonomia solidarioaren bigarren ikuspegia askoz mikroagoa da. Esperientzia zehatzetan dago oinarri-

¹⁷ Mondragón Corporación Cooperativa (MCC) taldearen ingurunean euskal kooperatiben kasua eta nazioarteko bihurtzeko garatu duten prozesua paradigmakoak dira benetan. MCC nazioarteko bihurtzeko ereduaz aitzakia Errastik (2002) adierazten duenez, lankidetzaren arteko bidez nazioarteko bihurtzeko zailtasunak eduki ditu Mondragón taldeak. Horren ondorioz, eredu duala da gaur egun, matrizeko enpresa kooperatiboak eta haren menpeko zein kapital publiko eta pribatuko filialak bateratzen dituelako. Hori dela-eta, ohiko printzipio kooperatiboak kolokan jarri direnez, Mondragón taldea eta beste kooperatiba asko oso bidegurutze zailen daude gaur egun.

¹⁸ "Hirugarren sektorea", "ekonomia alternatiboa", "borondatezko lanaren sektorea", "irabazi-asmorik gabeko sektorea", "ekonomia ez-formala", "herri-ekonomia", "autokudeaketa-ekonomia" eta, batez ere, "ekonomia soziala" edo "ekonomia solidarioa". Oro har, honako hauek hartzen dira kontuan: kooperatibak, mutuak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, elkarrekin, fundazioak, lan-sozietate anonimoak, lan-sozietateak, laneratzeko enpresak, bidezko merkataritzako enpresak, enpresa sozialak, zerbitzu hurbiletan oinarritutako toki-jarduerak (adinekoentzako laguntza, haurtzaindegia, etxeko lanak), finantza solidarioak (banka etikoa, banka solidarioa)...

tuta, eta honako hauexek ditu aztergai nagusiak: erakundeak, euren funtzionamendua, euren ezaugarriak, euren forma juridiko desberdinak, euren jardueraren helburu diren sektoreak, euren baliabideak kudeatzeko modua edo euren bideragarritasuna bermatzeko eduki ditzaketen arazoak.

Ikusker horretatik, eredu alternatiboak proposatzea baino kezagarriagoa da gaur egungo ekonomian enpresa eta erakunde horientzako lekua aurkitzea, ohiko enpresa pribatuekin eta sektore publikoarekin batera lan egin dezaten. Agerikoa denez, enpresa/antolaketa arlokoa den ikuspegi horrek ekonomia solidarioaren zama politikoa gutxitzen du, eta enpresa sozialean zuzenean oinarritutako literatura-gorputz handi-handia sortzen du (Social Enterprise: ahots ingelesa ohikoagoa da), hurrengo epigrafean aztertuko dugun bezala.

Laburbilduta, Martinez eta Alvarez (2008) irakasleek bete-betean asmatu dutenez, *“ekonomia solidarioak bi gauza izendatzen ditu aldi berean: batetik, ekonomiari buruzko ikuspegi teorikoa (gizatasunez betea); eta bestetik, antolaera berezia (demokrazian eta enpresari kolektiboetan oinarrituta). Bertan, giza faktorea eta elkartegintza funtsezkoak dira, prozesu ekonomikoak egituratzeko orduan”*.

Autore horien ustez, ekonomia solidarioa zenbait intuizio nagusitan dago oinarrituta. Euren artean, honako hauexek nabarmentzen dira: (1) Lanaren zentraltasuna eta birplan-teamendua (ekonomia feministak soldatapeko eta soldatarik gabeko lanaren sorrerari eta berrantolaketari buruz egindako eztabaidetatik elikatzen da), pertsona guztiak behar beste diru-sarrera eduki ditzaten eta, aldi berean, pertsonen zainketarako eta bizitza luzatzeko ugalketarako jarduerak banatu daitezten. (2) Kontabilizatzeko beste modu bat, ongizatearen sorreran inplikaturako arlo guztiak kontuan hartzeko eta gizarte zein ingurumen arloko kostu guztiak ekoizpen-erakundeen kostuen egituran sartzeko. (3) Herritartasun ekonomikoaren garapena, ekoizpen-bideak eskuratzeko eta prozesu ekonomikoen gaineko kontrol demokratikoa lortzeko. (4) Lurraldeak eta nortasun sozialak biziberritzeko prozesua, oinarri lokal, etniko eta kulturaleko erkidegoetan sustraiak bilatzeko eta lurraldeen baliabideak zein berezitasunak berreskuratzeko.

Erronkak

Ekonomia solidarioaren kontzeptuaren berrikuspenera amaitzeko, oso interesgarria da galderei eta erronkei bu-

ruz hausnartzea. Beharbada, funtsezkoenetakoak lotura estua dauka errealitateko alderdi partzialetan (esperientzia partikular arrakastatsuetan) eta gizarte osoan eragina izan dezakeen proiektu eraldatzailea sustatzeko benetako aukerarekin. Zentzu horretan, Martinezek eta Alvarezek (2008) euren buruari galdetzen diote nolako gaitasuna duten ekonomia solidarioko eragileek, euren funtzionamendu-logikaz zirkuitu ekonomikoak ezartzeko eta kapitalismoaren barruan jarduteagatik presioei aurre egiteko, bertako logikan erori gabe.

Alde horretatik, Martinez Valleren esanetan (2009), asmo onetatik haratago, ez dago argi nola ezarriko den elkartasunaren logika lehiaren logikaren ordez, kapitalismoa alde batera utzi ahal izateko. Gainera, autore honek zalantzan jartzen du ekonomia solidarioaren etiketapean sartzen diren esperientzien heterogeneotasuna, azkenean ekimenen “kaxa” baino ez delako. Honako hauexek daude amalgama horretan: oso gutxi kapitalizatutako ekintzailtzak (laneskua prestakuntza-maila gutxikoa da, eta auto-zapalkuntzarako forma estaliak sortu ditzakete) eta oso-oso kooperatiba arrakastatsuek (merkatuaren logikapean dihardute, eta enpresa kapitalistak eurak baino eraginkorragoak dira). Bere iritziz, ekonomia solidarioa honako hauexek izan daiteke aldi berean: merkatu kapitalista sendotzen duten esperientziak elkartzeko arloa, “merkatua gizatiartu” nahi dutenentzako esparrua eta eremu alternatiboak eratu nahi dituztenentzako jarduketa-esparrua. Horren ondorioz, nortasun-ezagatik arazoak sortzen direnez eta proposamenak argiak ez direnez, gaizkiulertuak eta itxaropen faltsuak sortzen dira.

Aurreko gaiaren haritik, Eme et al-ek (2001) ekonomia solidarioak sortzen dituen aurreiritzien azterketan adierazitakoaren arabera, badago arriskurik, konponketarako karitate-ekonomia edo baztertuentzako azpiekonomia izan daitekeelako. Gainera, ekonomia pribatuak xurgatuko du berriro, heldutasunera heldzean errentagarritasun-aurreikuspen nahikoak sortzen dituztenean. Besterik ezean, sektore publikoak xurgatuko du, zerbitzu publiko hedatuaren eskaria sortzeko gai denean.

Hori dela-eta, beste erronka-arlo batera jo behar dugu, eta estatuak ekonomia solidarioaren garapenean eduki behar duen zereginarekin dago lotuta. Martinez eta Alvarezentzat (2008) oso zaila izango litzateke ekonomia solidarioko sektore hegemonikoa sortzea beste sektore batzuen gainean, estatuaren jarduketa aktiboa ez bada eta bere tresnen bitartez sustatzen ez badu. Nolanahi ere, enpresa sozialen kasuan ikusiko dugunez, badago

arriskurik (batez ere, ongizate-estatua nabari garatu duten herrialdeetan), estatuarekin duten harremanaren ondorioz (batez ere, enpresa solidarioen finantzabide moduan) ondasun eta zerbitzu publikoen hornikuntzaren pribatiziorako tresnak izan daitezkeelako azkenean, hau da, globalizazio neoliberalak sortutako hondamendi ekonomiko eta sozialei aurre egiteko salbamendua edo, gizarte-erantzukizuna kontuan hartzen duten enpresa pribatuen bitartez, gaur egungo ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko krisitik nola irten daitekeen azaltzeko adibidea. Bertan, hain zuzen ere, merkatuko mekanismo berberak erabiliko lirateke, eta ez litzateke kolokan jarriko sistema hegemonikoaren zein bere krisien oinarrian dagoen ekoizpen-bide kapitalista.

Edonola ere, Martínezek eta Álvarezek ondotxo diotenez (2008), zentzuzkoa omen da hauxe ekiditea: *"...oso kaltegarriak diren aurkako bi jarrera. Batetik, (...) bere esanahiaren larregizko ospe boluntarista, guraria eta errealtatea edo esperientzien premia eta euren bideragarritasuna nahasten direlako. Bestetik, (...) boterearen aurrean eta sistema ekonomiko kapitalistaren mundu-dimentsioaren aurrean euretako edozeinek garrantzirik ez duelako uste sendo etsigarrian."*

Ikuspegi horretatik, eurek proposatutako irakurketa pentsaera kritikoaren funtsezko baieztatenean dago oinarrituta, Boaventura de Sousa Santosen hitzak erabiliz gero, hau da, *"...errealitatea ez da egon dagoenera mugatzen, aukera-esparrua delako eta, bertan, baztertutako edo abian jarri gabeko alternatibak sartzen direlako"*. Hartara, honako hauxe iradokitzen dute: *"...utopismo pragmatikoan" oinarritutako irakurketa. Bertan, gainera, utopia hitzaren zentzua historiarekin, zientziarekin eta politikarekin da bateragarria."*

2.4. Enpresa soziala

Hurbilketa kontzeptuala

Enpresa sozialaren kontzeptua joan den mendeko 90eko hamarkadan agertu zen Europan¹⁹ eta AEBetan, eta gero

eta interes handiagoa pizten du arlo politiko zein akademikoetan. Kontzeptu horri buruzko literatura gehiena ingelesez argitaratu da, eta *Social Enterprise* terminoa erabiltzen du. Espainieraz, ordea, ez da hain ohikoa enpresa sozialaren terminoa erabiltzea. Izan ere, ekonomia sozialeko enpresa-motetako bat aipatzeko erabiltzen da oro har²⁰. Gainera, geroago ikusiko dugunez, batzuetan enpresa sozial zehatz bat aipatzeko erabiltzen da, laneratzeko enpresak, alegia²¹. Identifikazio horren ondorioz, nahaspila terminologikoa sortzen da, eta are gehiago larriagotzen da, laneratzeko enpresa askok oso partaide-tza esanguratsua dutelako REAS²² inguruan (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea) elkartutako ekonomia solidarioko enpresen sareetan.

Europako enpresa sozialari buruzko eztabaida era akademikoan sendotzeko orduan, garrantzi handia du EMES Europako Ikerketa Sareak²³. 1996an sortu zen, eta garai hartan Europar Batasuna osatzen zuten 15 herrialdeetako ikertzaileek osatzen dute. Sare horrek fondo europarez finantzatutako zenbait ikerketa-proiektu koordinatu ditu, eta, horren ondorioz, zenbait lan-koaderno, agiri eta, batez ere, gaiari buruzko bi liburu kolektibo argitaratu dira 2001ean eta 2006an²⁴. Testu horiek gaiari buruzko erreferentzia teoriko nagusietakoak dira gaur egun. Ondoren erabilitako kontzeptu asko sarearen esparruan eta bertako ikerketa-proiektuetan sortutako agirietatik hartu ditugu.

Defournyk eta Nyssenek azaltzen dutenez (2006), AEBetan, enpresa sozialaren kontzeptuak oso goraldi akademiko handia eduki du, Harvardeko Unibertsitateko negozio-eskolak "Social Enterprise Initiative" jaulki zuenetik. Harrezkero, Columbiak, Standfor, Yale eta antzeko beste unibertsitate ospetsu batzuek eta zenbait fundaziok ikasketa eta babes programak ezarri dituzte enpresa sozialentzat edo enpresari sozialak (Social Entrepreneurs) izan nahi dutenentzat.

Nahiz eta larregi sinplifikatu eta ñabardura nabariak galdu, Europan eta AEBetan enpresa sozialen inguruan duten ikuspegi desberdinaren elementu adierazgarrie-

¹⁹ Nyssens (2006) eta Defourny eta Nyssens (2008) autoreen esanetan, Italian bertan sortu zen "Impresa sociale" terminoa (bertako tradizioa luzea da kooperatibismoan zein ekonomia sozialean). Izan ere, Italiako Parlamentuak "kooperatiba sozialak" arautzeko legea onartu baino urtebete lehenago sortu zen.

²⁰ Ikus Monzón, 2006; eta Chaves eta Monzón, 2006.

²¹ Estatu espainolean, enpresa horiek 44/2007 Legearen arabera arautzen dira. Legeak 2000. urteaz geroztik zenbait autonomia-erkidegotan laneratzeko enpresen arloan ezartzen ari ziren arauketak harmonizatzea du helburu. Estatu espainoleko laneratzeko enpresen ikuspegi osoa edukitzeko, ikus Marcuellos et al., 2008.

²² www.economiasolidaria.org

²³ EMES European Research Network: www.emes.net

²⁴ Borzaga, C. eta Defourny, (2001): "The emergence of Social Enterprise" eta Nyssen, M. (ed.) (2006): "Social Enterprise".

netakoak lotura estua eduki lezake terminoa artikulu honetan aurretiaz arakatutako tradizio bietako batean txertatzeko gurariarekin: ekonomia sozialaren tradizioa (Europa) eta Non-Profit sektorearen tradizioa (AEB).

Horiek horrela, aurreko argudioen haritik, Europan enpresa sozialen dimentsio kolektiboa nabarmentzen da, euren izaera demokratikoa eta ekonomia ulertzeko eta egiteko duten modu desberdina. Euren sorrerak ekonomia sozialaren sustapen berriarekin du zerikusia, gizarte zibilak globalizazioaren erronkei emandako erantzunarekin, langabeziaren zein bazterketaren ondorioz sortutako arazo ekonomiko eta sozialetarako irtenbide berrien bilaketarekin, sektore pribatuak edo sektore publikoak ase gabeko eskari sozial berriei emandako erantzunarekin eta, Europako ongizate-estatua berriro diseinatzeke testuinguruan, zerbitzu publiko batzuen hornidura ulertzeko modu berriarekin.

AEBetan, non-profit tradizioarekiko txertaketak mozkinen ez-banaketa nabarmentzen du, eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-sarrerak sortzeko aukera moduan kontzeptualizatzen ditu enpresa sozialak, erakunde horientzako fondo publikoek behera egin dutenean. Izan ere, enpresa sozial asko sortzen diren erakundeen merkataritza-adarrean eraten dira (eraginkortasunez dihardute merkatuan), eta enpresa sozialek sortutako mozkinak erabiltzen dituzte erakunden euren xedea lortzeko.

Esate baterako, Enpresa Sozialaren aldeko Aliantzak²⁵ (Social Enterprise Alliance - SEAK) enpresa sozialaren honako azalpen hau erabiltzen du: "bere karitate-xedearako finantziazioa lortzeko asmoz, irabazi-asmorik gabeko erakundeak diru-sarrerak sortzeko abian jarritako edozein negozio edo estrategia²⁶".

Hala ere, oso garrantzitsua da aipatzea enpresa sozialaren ikuspegi hori "helburu sozialeko negozioa" kontzepturantz bilakatzen ari dela azken urteotan. Bertan, hain zuzen ere, merkatuko diru-sarreraren bidezko finantzia-

zioa lortzea da kezka nagusia, bai eta ohiko enpresen betiko kudeaketa-metodoak ezartzea ere, erakundearen eraginkortasun orokorra hobetu ahal izateko. Aldaketa horren adierazgarri, gaur egun SEAK berak honako azalpen hau erabiltzen du: "enpresa sozialak gizarte edo ingurumen arloan daukan lehentasunezko xedea betetzen du, negozioak kudeatzeko metodoen bitartez." (gure itzulpena).

Enpresa sozialaren beste ikuspegi alternatibo bat ere oso hedatuta dago AEBetan, eta gero eta eragin handiagoa du Europan: antolaera barik, helburu sozialaz ekiteko ekingintza bera nabarmentzen du, hau da, sustatzaileen ezaugarriak eta nortasuna eta sorrerarako zein arrakastarako baldintzak. Ikuspegi horren izena *Social Entrepreneurship*²⁷ da ingelesez, eta oso zaila da gaztelaniara itzultzea. Herrialde anglosaxoietan oso-oso erabilia da, eta negozio-unibertsitate ospetsuek (Erresuma Batuko Oxfordeko negozio-eskolak, esaterako)²⁸ gai horiei buruzko unibertsitate-prestakuntzarako programa bereziak ezarri dituzte.

Ikuspegi hori nazioarteko zenbait fundaziok sustatzen dute, eta konpromisoa hartu dute sustatzaile sozial berrien identifikazio eta babesarekin. Gainera, eskala handian hedatzen dituzte arazo sozialak konpontzeko dauzkaten ideia, jarrera eta metodo berritzaileak. Ashoka eta Schwab Foundation²⁹ dira ezagunenak. Ashoka 1980an sortu zuen Bill Draytonek (Mc Kinsey and Companyko aholkulari ohiak), AEBetako fundazio aitzindaria da sektorean eta mundu zabaleko enpresari sozialentzako laguntza-programak ditu. Schwab Foundation for Social Entrepreneurship 1998an sortu zuten Klaus eta Hilde Schawbek. 1971. urtean, hain zuzen ere, Munduko Foro Ekonomiko boteretsua ere sortu zuten (World Economic Forum). Urtero, foroak Suitzako Davosen elkartzen ditu munduko lider politiko eta enpresari nagusiak. Schwab Foundation aurrekoaren erakunde anaia da, eta zenbait enpresa multinazional ditu bazkide: Goldman Sachs, Corporación Microsoft, Boston Consulting Group eta Ernst & Young.

²⁵ Ikus www.se-alliance.org/making_the_case_final.pdf

²⁶ "The Women's bean project" (www.womensbeanproject.com) AEBetako enpresa soziala da, eta SEAKen web orriko bideo hezigarri batean aipatzen dute. Oso adibide ona da ikuspegi honetarako. Honako hauxe aipatzen dute enpresaren filosofiaren aurkezpenean: "The Women's bean project enpresak ez ditu emakumeak enplegatzen, indiatetan oinarritutako produktuak ekoizteko eta saltzeko. The Women's bean project enpresak indiatetan oinarritutako produktuak ekoizti eta saldu egiten ditu, emakumeak enplegatzeko." (gure itzulpena).

²⁷ Kontzeptu hori "ekintzailera sozial" moduan itzuli dugu, eta gero eta sarriagotan erabiltzen den terminoa da. Esate baterako, ikusi nola erabiltzen den Berrikuntzaren Euskal Agentzian (Innobasque: www.innobasque.com). *Social Entrepreneurship* kontzeptuari buruzko azterketa zehatz baterako, ikus Nicholls (2006) edo Perrini (2006).

²⁸ Oxfordeko negozio-eskolaren menpeko Skoll Centre for Social Entrepreneurship dugu hizpide (Said Business School): www.sbs.ox.ac.uk/skoll/

²⁹ www.ashoka.org; www.schwabfound.org

Gutxienez, *Social Entrepreneurship* ikuspegiaren lau alderdi berezi nabarmendu nahi genituzke: (1) erakundeei barik, gizabanako ameslari, pragmatiko eta liderrei ematen die lehentasuna; (2) beretzat, arazoei irtenbide berritzaileak eman eta berrikuntza sozialerako prozesuak zuzentzen dituzten pertsonak dira enpresari sozialak; (3) ihardesteko gaitasunari, eskala handiko eraginari ematen dio lehentasuna eta; (4) azkenik, onartu egiten du enpresari sozialak eta ekintzailtza sozialeko prozesuak edozein sektoretakoak izatea eta edonolako antolaera edukitzea. Beraz, sektore pribatukoak (ohiko enpresak) eta sektore publikokoak izatea onartzen du.

Hartara, Nicholls-ustez (2006), "*erabilitako antolaerak ez du garrantzirik ia-ia: sustatzaile sozialek sektore publiko, pribatu edo sozialean lan egiten dute, eta irabazi-asmorik gabeko eta irabazi-asmadun antolaerak nahiz antolaera hibridoak (edo hiruren nahasketak) erabiltzen dituzte, balio soziala sortzeko eta aldaketa bultzatzeko*". Ikuspegi horren eraginpean, "ekintzailtza sozialaren" eta erakundeen edo enpresen gizarte-erantzukizunaren arteko mugak lausotuta geratu daitezke.

Enpresa sozialen hazkuntza eta babes publikoa

Lehen adierazi dugunez, enpresa sozialen inguruko interes akademikoa hazi egin da, euren kopurua gehitzean eta Europako herrialde askotan interes politikoa piztean. Interes horren adierazgarri, sektoreko arautegiak garatu dira. Izan ere, oro har hartzen dituzten forma juridiko eta legalak ekonomia sozialeko ohikoak diren arren, zenbait herrialdek enpresa sozialentzako forma juridiko bereziak garatu dituzte; esate baterako, Erresuma Batuko "komunitate-intereseko enpresak" (*Community Interest Company*), Frantziako "interes kolektiboko sozietate kooperatiboak" (*Société coopérative d'intérêt collectif*), Belgikako "helburu sozialeko enpresak" (*Société à finalité sociale o Vennootschap met social oogmerk*) eta Italiako "kooperatiba sozial" aitzindariak (*Cooperative social*)³⁰.

Horren osagarri, zenbait herrialdetako sektore publikoak instituzioak antolatu, babestu eta finantzatu egin ditu, enpresa sozialak sortzeko eta sendotzeko prestakuntza, finantziarioa eta babesa eskaini ahal izateko. Europarren artean, joera hori oso argia izan da Erresuma Batuan. Gobernu laboristen eraginez, enpresa sozialak "hirugarren bideko" zenbait politikatako eragile nagusietakoak dira

gaur egun. Doherty et al (2009) azterketa xehea eskaintzen du Britainia Handiko gobernuak abian jarritako estrategiei buruz, 2002an Merkataritza eta Industria Sailak (DTIK) "enpresa sozialak, arrakastarako estrategia" izenburupeko lehenengoa ezarri zuenetik. Harrezkero, gobernuko sail gehienek estrategiak egin dituzte, euren helburu estrategikoen lorpenean enpresa sozialak txertatu ahal izateko.

Bestetik, Britainia Handiko kasuan oso interesgarria da tokian-tokian, eskualdean eta estatuan antolatutako enpresa sozialen sareen sarea. Honako hauexek dira eragingarrienak: Social Enterprise London (Londresko metropolialdeko enpresak elkartzen dira bertan, eta estrategia bateratua koordinatu nahi du kide dituen 33 toki-agintaritzentzat) eta Social Enterprise Coalition (SEC). Bigarrena agentzia nazionala da, 10.500 erakunde elkartzen ditu eta sailtako politikan eragiteko gaitasun handia garatu du.

Edonola ere, enpresa sozial ugari daudenez eta gobernuak etengabe sustatzen dituen, euren zereginari buruzko eztabaida bizia piztu da, Erresuma Batuko zerbitzu publikoen horniduraren pribatizazioan nolako zeresana duten zehazteko. Aminin iritiz (2009), ongizatearen nolabaiteko "merkatu soziala" sortzean, arriskuak eta erantzukizunak estatutik aldenitu eta pertsonengana hurbildu dira. Hori dela-eta, zerbitzu sozialak enpresa sozialen esku daude, eta, askotan, finantziario-arazoak dituzte edo oso-oso menpekoak eta ezegonkorak dira. Horrez gain, kalitateko zerbitzuak prezio merkean hornitu daitezkeela edo enpresa sozialak kalitateko zerbitzuen hornitzaile eraginkorak direla pentsatzean, erakunde horiek euren lehentasunak aldatzen hasi dira, eta helburu sozialen lehentasuna baztertu dute, merkataritza-helburuak sustatzeko (ondo kudeatutako negozio eraginkorra izatea). Horren ondorioz, euren sinesgarritasuna higatu da, eta merkatuko lehiapean jarri dira berez aurrera egiteko arazoa larriak dauzkaten erakundeak.

Enpresa sozialaren definizioari buruzko eztabaidak

Enpresa sozialaren kontzeptuari berari buruzko eztabaidak kontuan hartuta, ez da harrizkoa definizioari buruko adostasun argirik ez egotea. Eztabaida hori ez da debate akademiko antzua, ondorio garrantzitsuak dituelako sektorean. Definizioa argia ez denez, ez dago mapeorik egiterik, zenbat diren, non dauden eta zer sek-

³⁰ Defourny (2006) ibid.

toretan diharduten jakiteko. Beraz, ez dira agerikoak, eta sektorearen garrantzia behatzailearen interesen eta agendaren arabera handitu edo txikiagotu egiten da. Are gehiago, enpresa sozialek zerbitzu publikoak hornitzeko orduan gero eta zeresan handiagoa omen dute-nez, kontuak are argiagoak izan behar dira, eta irizpide argiak ezarri behar dira, sektorea ezagutu eta ebaluatze-ko orduan.

Edonola ere, Lyonek eta Sepulvedak adierazten dutenez (2009), irizpideen definizioen gaia ez da gai teknikoa. Hain zuzen ere, definizioaren inguruko adostasuna egonda ere, desberdintasunak agertu daitezke irizpideen interpretazioan³¹. Horren ondorioz, arazoa aukeraketa politikoko arazo bihurtzen da, zer erakunde diren sektorekoak eta zein ez zehazteko orduan.

Definizio erabilien artean, EMES Sarearen proposamena nabarmentzen da, mota ideal weberiarren antzeko formulazioa aukeratu duelako. Definizio-irizpide zorrotzak proposatu beharrean, nolabaiteko iparrorratz kontzeptuala eskaintzen du, erakunde partikularrak proposatutako mota idealetik zenbat aldentzen diren edo hurreratzen diren zehazteko. Horrela, bada, hauxe izango litzateke enpresa soziala: *“komunitatearen onurarako helburu argiaz sortutako erakundea, herritarrek hasitakoa eta kapital-inbertsiogileen interes material mugatukoa. Horrez gain, enpresa sozialek euren autonomiari eta jarduera sozio-ekonomiko etengabearen ondorioz sortutako arrisku ekonomikoari garrantzia berezia ematen diete”*. Definizio horretan, bi irizpide-talde bereizten dira: ekonomikoak eta sozialak. Honako hauexek daude lehenengoan artean:

- i) *Ondasunak eta/edo zerbitzuak sortzeko jarduera jarraitua*: ekoizpen-jardueran zuzenean eta etengabe inplikaturik egotea enpresa soziala sortzeko arrazoi nagusietakoa da.
- ii) *Autonomia-maila handia*: pertsona-talde batek proiektu autonomo baten inguruan sortutako enpresak dira. Pertsona horiek enpresa gobernatzen dutenez, ahots independentea edukitzeko eta, egokia izanez gero, jarduerari amaiera emateko eskubidea daukate. Enpresa ez dute zuzenean edo zeharka beste erakunde batzuek eta sektore publikoak kudeatuko, dirulaguntza publikoen menpe egon arren.

- iii) *Arrisku ekonomikoaren maila adierazgarria*: enpresa soziala ezartzen dutenek arrisku ekonomiko osoa edo partziala hartzen dute euren gain. Bertako kideek baliabide-maila egokia bermatzeko egiten dituzten ahaleginen arabera izango da enpresaren bideragarritasuna.
- iv) *Soldatapeko lan-mailaren bat dago*: diru-arlokoak diren eta ez diren baliabideak bateratu ahal izango dira, borondatezko lana eta soldatapeko lana, baina gutxienez, soldatapeko gutxieneko lana egon beharko da.

Honako irizpide sozial hauek nabarmentzen dira:

- i) *Komunitatearen edo pertsona-talde zehatzaren onurarako helburu argia*: modu berean, tokian-tokian gizarte-erantzukizuna sustatzeko duten interesa da enpresa sozialen ezaugarrietakoa.
- ii) *Pertsona-talde baten ekimena*: gizabanakoaren edo pertsona-talde txikiaren lidergoaren garrantzia alde batera uzterik ez dagoen arren, dimentsio kolektiboari eutsi behar zaio urteen joan-etorrian. Enpresa sozialak dinamika kolektiboaren emaitza dira.
- iii) *Erabakitze boterea ez da kapitalaren jabetzan oinarrituta*: kapitalaren jabeak garrantzitsuak badira ere, erabakiak hartzeko eskubideak gainerako eragile interesdunekin partekatzen dituzte.
- iv) *Partaidetzakoa izatean, jardueran engaiatutako alderdi guztiak daude inplikaturik*: kontsumitzaile eta erabiltzaileen ordezkartza eta partaidetzako kudeaketa enpresa sozialen ezaugarri garrantzitsuak dira. Askotan, jarduera ekonomikoaren bitartez tokian tokiko demokrazia sustatzea da enpresaren helburuetakoa.
- v) *Mozkinen banaketa mugatua*: enpresa sozialek nolabaiteko mugaraino banatu ditzakete mozkinak, mozkinen maximizazioaren logika ekiditeko³².

Defournyren eta Nyssensen esanetan (2006), enpresa sozialaren definizio horri eta definizioa zehazteko erabilitako irizpideei esker, hirugarren sektorearen ohiko bi osagaien arteko zubia ezarri daiteke: mugimendu kooperatiboa eta

³¹ Lyonek eta Sepulvedak zenbait irizpide interpretatzean sortzen diren arazo praktikoei buruzko eztabaida interesgarria eskaintzen dute: “orientazio soziala”, “jabetza soziala” edo “merkatu-orientazioa”.

³² Defourny J. eta Nyssen, M: *“Defining social enterprise”* in Nyssen, M. (2006) (ed.): *“Social Enterprise”* Ed. Routledge. London.

irabazi-asmorik gabeko elkarte eta kolektiboen tradizioa. Ohiko elkarteekin erkatuz gero, enpresa sozialek lehentasun handiagoa ematen diote ekoizpen-jarduerekin lotutako arrisku ekonomikoari. Gainera, betiko kooperatiben aldean (euren kooperatibisten interesa dute helburu), enpresa sozialek lehentasun handiagoa ematen diete komunitateari eta interes orokorrari.

Era berean, Britainia Handiko gobernuko Merkataritza eta Industria Sailak (DTIK) erabilitakoa ere bada ohiko beste definizio bat. Horren arabera, *“enpresa soziala negozioa da, eta helburu sozialak ditu, batik bat. Gainera, bere soberakinak enpresan bertan edo erkidegoan berrinbertitzen dira batez ere, helburu sozial horiek lortu ahal izateko. Beraz, ez ditu akziodun edo jabeentzako mozkinak maximizatu behar.”* (DTI 2002, gure itzulpena).

Enpresa sozialaren beste definizio asko daude³³. Ekonomia sozialaren kasuan bezala, bakoitzak alderdi zehatz bat nabarmentzen du, eta sektoreari begiratzeke eta sektorearen

garapenerako lehentasunak berariaz proposatzeko modua da. Nolanahi ere, Peattiek eta Morleyk adierazten dutenez (2008), definizio gehienak kontuan hartuta, enpresa sozialek bi baldintza betetzen dituzte aldi berean:

- a) Ondasunak eta zerbitzuak saltzean, diru-sarrerak sortzen dituzte merkatuan (zentzu horretan, “enpresak” dira eta ez elkarteak edo erakunde bate-ratuak).
- b) Ageriko helburu sozialak dituzte eta ez merkataritza-arlokoak, hau da, euren logika ez da mozkinen lorpenarena.

Horrela, azalpen gehienek arabera, enpresa sozialak sektore pribatuaren eta sektore publikoaren arteko guneren batean daude edo irabazi-asmorik gabeko erakundeen (*Non-profit*) eta merkatuko enpresen artean. Alde horretatik, enpresa sozialen eta gizarte-erantzukizuna kontuan hartzen duten enpresa pribatuen arteko banalerroa fina dela esan daiteke.

1. taula: Enpresa soziala testuingururutzen

Sektore pribatua	Gizarteari begira arduratsuak diren enpresak	Enpresa sozialak	GKE eta sektore boluntarioa	Gobernua
Enpresakoak Salmentengatiko diru-sarrerak			Dirulaguntzak eta dohaintzak	Zergak
Helburu pribatuak	Helburu sozialak		Helburu politikoak	
Jabetza pribatua	Jabetza soziala		Jabetza publikoa	

Iturria: Social Enterprise London, 2007.

Definizio eta ñabardura asko daudenez, ez dago behar besteko zehaztasunik, erkapenak ezartzeko edo jarduketako emaitzak ebaluatzeko orduan. Helen Haughek dioenez (2004), arazoaren zati batek lotura estua du egitate honekin: enpresa sozialaren inguruko interesa bere sustapenerako politikatetik zuzendu dute neurri handi batean eta ez euren ezaugarrien ikerketatik. Guzti honen ondorengo puntuen ahalmenaren inguruko hainbat balioespen sortu ditu: kapital soziala sortzea, bete gabe-

ko premiei erantzutea, lan-modu berriak sortzea, toki-garapena sustatzea, ondasun eta zerbitzu berriak zehaztea, integrazioa bultzatzea, lana sortzea, industriaren edo udalerraren xarma hobetzea eta toki-baliabideak sendotzea. Hala ere, oraindik ez da euren balio eta ekarpenaren inguruko egiaztapen sendorik, ez eta euren sorrera, kudeaketa eta jarduna arautzeko logikari eta arrazoiei buruzko teoriarik ere.

³³ Enpresa sozialaren azalpenak osorik berrikusteko, ikus Alter, K. (2004): *“Social Enterprise Typology”*, www.virtueventures.com/setypology; Bartlett, L. (2004): *“An exploration of contemporary meanings of Social Enterprise”*; Peattie eta Morley (2008) *“Social Enterprises: Diversity and Dynamics, Context and Contributions- A Research Monograph”*; Doherty et al. (2009): *“Management for Social Enterprise”*.

3. Azterketa konparatiboa

3.1. Kontzeptuen arteko mugak eta elkarguneak

Ekonomia soziala eta Non-Profit Organizations (NPO)

Lan honetan baieztatu dugun bezala, ekonomia sozialeko enpresak eta *non-profit* elkarteak bat datoz zenbait arlotan, baina erabat kontrakoak dira beste batzuetan. Arlo bakoitzean ezartzen dituzten printzipio bereizgarriek argi eta garbi zehazten dituzte bi arloak.

Hartara, enpresa bat ekonomia sozialekoa izan dadin, kudeaketa demokratikoa izan behar da bere ezaugarri nagusia (erabakiak hartzean, mozkinak banatzean eta informazioa eskuratzean). Ez-merkatukoak diren zenbait elkarte sartzen dira, baina ez guztiak, mekanismo demokratikoen araupean daudenak besterik ez (lehentasunezko ondasunak eskaintzen dituzten elkarteak izan ezik). Beraz, borondatezko lanerako eta irabazi-asmorik gabeko elkarte asko ekonomia sozialek kanpo geratuko lirarteke (adibideren bat jartzearren, zenbait unibertsitate, ikastetxe, erakunde kultural...).

NPOen betekizun nagusia irabazi-asmorik ez edukitzea da, ordea. Irizpide horren eraginpean, ekonomia sozialeko muinak, hau da, kooperatibak eta mutualitateak, sektore honetatik kanpo geratuko lirarteke. Beraz, ekonomia sozialak eta NPOek partekatutako eremua borondatezko lanerako zenbait elkartetara murriztuko litzateke, euren funtzionamendua demokratikoa delako, pertsoneri edo familiei zenbait ondasun oso prezio merkeetan eskaintzeko orduan.

Zenbait autorek ere azken alderdi hori nabarmentzen dute, garatutako jardueraren onuradunak ere izenean eragina duela eransteko orduan. Hau da, ekonomia so-

zialeko enpresak bazkide-sortzaileen euren premiei erantzuteko sortzen dira lehendabizi, eta, aldi berean, komunitatearen ongizatearen onerako jarduerak garatzen dituzte. Edonola ere, NPOek ez dute horren inguruko betekizunik ezartzen, pertsoneri edo finantzatzen dituzten sozietateei zerbitzuak eskaintzeko fundazioak sortu daitezkeelako.

Ekonomia soziala eta enpresa soziala

Bi azterketa-arlo horien eta euren "eskolen" artean, eragin handiak antzematen dira, elkargune zabalak, baina aldi berean, bata "bestearengandik" bereizteko premiaren ondorioz sortutako nolabaiteko barne-tentsioak ere bai. Egia esan, zenbait autorek (esaterako, Britainia Handiko Roger Spearrek edo Italiako Carlo Borzagak) kontzeptu bakoitzaren ordezkari diren bi eskola nagusietan lan egiten dute (EMES eta CIRIEC). Hala ere, oso gogoan eduki behar dugu eskola horiek tradizio desberdinetatik datozela (frankofonia eta anglosaxoia), ikertzaile-sare desberdinak osatzen dituztela eta antzeko aztergaiaren inguruko ikerketa-proiektuak sustatzen dituztela Europan.

Horrela, bada, nahiko antzekoak diren errealitatean eta eskalan jardutean, bi eskolak ahalik eta zehaztasun handienaz zehaztu behar izan dira. Euren berezitasunei men egiteko premiaren ondorioz, ekonomia sozialaren kontzeptua eta arlo horretako ikertzaileak mundu kooperatiboan sailkatu dira askotan. Modu berean, askotan laneratzeko enprekin parekatu dituzte enpresa sozialak. Gure ustez, bi kontzeptuetako batek ere ez du bere azterketa-eremua aipatutako errealitateetara mugatzen.

CIRIECen arabera, enpresa sozialak aintzat hartu eta identifikatzen dira, baina garrantzia handiagoa daukan

ekonomia sozialaren kontzeptuaren osagai bezala. Hala ere, enpresa sozialaren teorikoen esanetan, ekonomia sozialak kooperatiba eta mutualitateekin du zerikusia, eta, forma juridiko horietara egokitu behar denez, oso oso zaila da benetako helburu sozialak dituzten beste enpresa batzuk aztertzea.

Are gehiago zehaztu liteke bereizketa hori, gure ustez erabakigarria delako ez-merkatuko elkarte edo erakundeak dagokienez. Enpresa sozialen printzipioen arabera, enpresak nolabaiteko arrisku ekonomikoak hartu behar ditu bere gain. Zentzu horretan, enpresak neurria handi edo txikiagoan merkaturatu behar dira, eta autofinantziaziorako nolabaiteko gaitasuna erakutsi beharko lukete. Alde horretatik, borondatezko lanerako elkarteak ezin litezke enpresa sozialtzat hartu, merkatuan ez badiradute eta borondatezko lanean bakarrik oinarritzen badira. Edonola ere, erakunde horiek demokratikoak badira, ekonomia sozialeko enpresatzat hartu litezke (gainera, demokratikoak izan gabe ere izan litezke, betiere lehentasuneko ondasunak eskaintzen badituzte).

Azkenik, oso kontuan hartu beharra dago kooperatibek eta mutualitateek bertako kideen interesen defentsari ematen diotela lehentasuna eta enpresa sozialen izaera komunitarioagoa dela. Bere helburu soziala interes orokorrerako edo komunitate osoarentzako onuraren inguruan mugitzen da. Horren ondorioz, kooperatiben eta mutualitateen aldean, enpresa sozialek zenbait eratako taldeak dituzte (*stakeholders*) euren kideen artean (onuradunak, langileak eta komunitateetako taldeak).

Azken batean, kooperatibez eta mutualitateez gain, zenbait premia soziali aurre egiteko sortzen diren enpresa guztiak izan litezke enpresa sozialak, euren forma juridikoa edozein dela ere (toki-garapenerako agentziak, laneratzeko enpresak, garraio-enpresa komunitarioak, elkarte anonimoak, lan-elkarteak...). CIRIECek jakinarazitako azken proposamenen haritik, ekonomia sozialak gero eta argiago dauka kontzeptuak kortse formala gaintu behar duela, forma juridikoak alde batera utzi behar dituela eta, neurri handiago batean, enpresen funtsari ematen diola lehentasuna, azken batean bere jarduerara eta helburua soziala da-eta.

Ekonomia soziala eta ekonomia solidarioa

Ez dirudi zalantza gehiegi dagoenik ekonomia solidarioa ekonomia sozialaren parte dela adieraztean. Horren adierazgarri, CIRIECek bere txosten berrienean sartzen

du ekonomia sozialeko formetako bat izango balitz bezala. Dena dela, oso esanguratsua da, ekonomia solidarioaren erreferentzia kontutan hartu badute ere, oso atal laburrean jorratzen dutela, ekarpenetan larregi sakondu gabe.

Bestetik, "ekonomia soziala eta solidarioa" erreferentzia gero eta sarriagotan agertzen da mundu zabaleko bil-tzar-deialdi, sinposio, foro, sare eta argitalpenetan. Ekitaldi horietan, bi izenetako pertsonak eta erakundeak elkartzen dira. Nolanahi ere, zenbait elementu eta dinamika nabarmendu behar dira, euren ondorioz bi termino horiek berrikuspen dinamikopean daudelako.

Ohiko ekonomia sozialeko enpresak elkartzen dituzten erakundeen interes eta eztabaidetan, mutualitate eta kooperatiben agendak dira nagusi, baina batez ere, Europakoak eta Kanadakoak. Bertan, esperientzia zahar, garatu eta esanguratsuenetakoak daude (esate baterako, Euskadiko Mondragón Taldea, Frantziako mutualitateak edo Desjardins Quebecoise). Hona hemen eztabaidagai nagusiak: benetan merkaturatzeko ereduak, nazioarteko bihurtzeko arazoak, kapital-enpresekiko lehia, berrikuntza, kudeaketa-metodo modernoak edo politika publikoetan eragiteko gaitasuna.

Edonola ere, ekonomia solidarioan, pentsaeraren eta hausnarketaren ardatzak dira honako eztabaidagai hauek: gizarte-aldaketa, eredu ekonomiko alternatiboen eraketa, kapitalismoaren alternatibak edo txirotasunari nahiz gizarte-bazterketari aurre egiteko formak. Aldi berean, kritikatu egiten da ohiko ekonomia sozialeko zenbait enpresa lar instituzionalizatuta daudela eta kooperatibismoaren zein elkartegintzaren balio nagusiak galdu direla. Hori dela-eta, ekonomia sozialeko enpresa batzuk izenean baino ez dira sozialak.

Horren osagarri, ekonomia solidarioak dinamika sortzailer handiagoa dauka, diziplina ekonomikoa den eta gizarte-aldaketa bultzatzen duen ekonomia sozialaren interesak zabaltzen dituzten gaiak eta ekintzailtzak txertatzeko orduan. Horiek horrela, zorrotzak izateko asmorik gabe, honako gai hauei buruzko eztabaida intergarriak sortzen dira:

- i) Ekonomia solidarioa eta generoa, ekonomia feministak eta patriarkatuari buruzko azterketek ekonomia-arloaren azalpenean egindako ekarpena.
- ii) Trukean oinarritutako sistemei edo tokiko-monetan oinarritutako sistemei buruzko eztabaidak eta azterketak (SELak).

- iii) Ekoizpen-prozesuetatik haratago doazen alderdiak kontuan hartzeko saialdiak; esate baterako, balio-kate solidarioen eraketari eta sustapenari buruzko azterketak eta enpresa solidarioek ekonomia solidarioaren eraginaren hedapenean eduki dezaketen zeresanari buruzko azterketak.
- iv) Banaketaren esparruaren ezarpena, bidezko merkataritzaren eta merkatu sozialen egituraketaren bitartez.
- v) Kontsumo arduratsurako hausnarketei eta esperientziei emandako garrantzi handia.
- vi) Ekonomia sozialeko finantza-arloaren hedapena finantza solidarioen eta banka etikoaren arlorantz.

Azkenik, ikuspegi geografikotik, ekonomia solidarioak, bere sareek eta antolaerek ekonomia sozialaren hazkuntza-dinamika handia sortzen dute munduko beste leku batzuetan. Horra hor Afrika, Asia edo Latinoamerika. Askotan, honako faktore hauek daude hedapen horren jatorrian: antolaeren malgutasuna, antzeko gaien proposamena eta zenbait eragile nahiz gizarte-mugimendurekin horizontalean elkarreragiteko gaitasuna.

Ekonomia solidarioa eta enpresa soziala

Ikusi dugun bezala, argitasun diskurtsibo handiagoa lortzeko ikuspegiok estankoak balira bezala banatu ditugun arren, egia esan euren arteko lotura orrialde hauek irakurtzean pentsa litekeena baino askoz handiagoa da. Izan ere, enpresa soziala (edo enpresa solidarioa), azterketa-subjektu moduan, bi ikuspegien arteko elkargunea da. Ekonomia sozialetik ikuspegi makroagoaren alde egin ohi dutenek ere azterketa xehak egiten dituzte enpresa-errealitate zehatzei buruz. Dena dela, euren azterketan, bat datoz euren postulatu teoriko nagusiekin, eta antolaketaren errealitatea ere gehiago testuingururatzten dute ingurune ekonomiko globalean.

Aurkakoa ere bada egia. Perspektiba mikroa landu ohi duten autoreek saio teorikoak egiten dituzte gizartea aldatzeko aukeretan eta enpresa horien partaidetza izan dezaketen gizarte-antolamendurako alternatibetan. Nolabaiteko ernalketa gurutzatu hori bi ikuspegietako ordezkarien partaidetza daukaten ekitaldietan ere antzematen da edo euren lan-lerroen argitalpenetan ere bai. Bertan, hain zuzen ere, bi ikuspegietako proposamengileak agertzen dira. Hartara, adibide bat jartzearen,

Jean Louis Laville edo Luz Ignazio Gaiger erreferentziako bi pentsalari dira ekonomia solidarioaren arloan, eta, aldi berean, EMES Networkeko kideak ere badira. Izan ere, bertako argitalpenetan agertzen dira sarritan.

3.2. Kontzeptu bakoitzaren kokapena definizio irizpide ezberdinen arabera

NPOei buruzko azterlanean Sajardok (1998) proposatzen duen bezala, irizpide analitikoak kontuan hartuz gero, zenbait sailkapen egin daitezke era guztietako ezaugarrien arabera, irabazi-asmorik gabeko erakundeetan bertan eta ekonomia sozial zein solidarioko gainerako erakundeetan.

Hona hemen erabilitako irizpideak:

Legezko irizpidea

Irizpide honen arabera, erakundeak euren nortasunaren eta arauzko esparruaren arabera sailkatzen dira. Irizpide honen ondorioz sortutako izenak bereziak dira herrialde bakoitzean. Aurreko atalean adierazi bezala, irizpide honen badu abantailarik, identifikazio-irizpide argiak ezartzen dituelako. Dena dela, ez dute nazioartean estrapolatzeko moduko kategoria homologagarriarik eskaintzen.

Zentzu horretan, eskola batzuek forma juridikoari eman diote garrantzia, eta beste batzuek alde batera utzi dute. Batetik, elkarte eta fundazio guztiak kokatzen dira NPOen barruan, helburu sozial zehatzik eskatu ezin zaien arren. Ekonomia sozialeko enpresak kooperatiba, mutualitate eta elkarteekin ere identifikatu dituzte, euren jarduera tokian tokira mugatuta egon behar ez den arren.

Bestetik, ekonomia solidarioaren eta enpresa sozialaren kontzeptuetan, hainbat eta hainbat forma juridiko onartzen dira (laneratzeko enpresak, sozietate mugatuak, sozietate anonimoak, toki-garapenerako agentziak...). Horrez gain, batez ere tokian tokiko garapen eta ongizatearekin lotutako proiektu sozio-ekonomikodun erakundeak ere badaude bertan (nazioartean euren proiektio politikoa garrantzitsua izan daitekeen arren).

Irizpide funtzionala

Irizpide honen arabera, euren eginkizunen arabera aztertzen dira erakundeak. Zentzu horretan, eginkizuna bera zenbait kategoriaren arabera ere ebaluatu daiteke:

erabiliena *ekoizpenaren eginkizuna* da. Horren arabera, sektore pribatuak ez ekoiztako (errentagarriak ez iza-teagatik) edo txarto ekoiztako (merkatuko akatsen teoria) outputak edo sektore publikoak ez eskainitako edo txarto eskainitako output kolektiboak eskaintzen dituztenak dira.

Irizpide honetan, lan honetan jorratutako adiera guztiak bateratzen dira, hemen azaldutako erakunde gehienak erakunde ekonomikoak direlako eta zenbait premia soziali aurre egiteko helburu argia dutelako. Premia horiei formula mutualisten bidez aurre egin ahal zaie (elkarteak, kooperatibak edo mutua), jarduera horretako lehen onuradunak bazkideak eurak direlako. Ostantzean, hirugarrenentzako zerbitzuen bitartez garatu daiteke, ondasunaren edo zerbitzuen hartzailea edo eroslea ekoizlea edo hornitzailea ez beste pertsona edo komunitate bat delako.

Aztertu beharreko beste alderdi funtzional bat erakunde-erabazpen-asmoa edo irabazi-asmorik eza izan liteke. Hasteko, administrazio publikoen aurrean autonomia-maila handiari eutsi behar dioten enpresa guztiak euren merkaturako-jardueraren bidez finantzatu behar dira, batez ere. Hori dela-eta, ezinbestekoa da posible modu eutsian sortzea luzaroan. Horra hor enpresa sozialak eta ekonomia sozialeko merkatu-erakundeak. Bestetik, soberakin horiek banatzean erakundeek kontuan hartu behar dituzten baldintzatzaileak aipatu behar ditugu. Alderdi hori barne-antolamenduan bertan kokatuta dagoenez, egiturazko irizpidean garatuko da.

Irizpide ekonomiko eta finantzarioa

Irizpide honen arabera, erakundeak euren errenta edo finantziario iturrien arabera sailkatzen dira. Irizpide finantzarioaren barruan, zenbait mutur ezarri litezke; esate baterako, buruaskitasun finantzario handienetik administrazio publikoekiko menpetasun-harreman finantzariraino.

Hartara, mi mutur argienak NPOak eta enpresa sozialak izango lirateke. Irabazi-asmorik gabekoak direnez, legearen arabera NPOak bertako kideen borondatezko dohaintzen bitartez finantzatu behar dira gehienbat. Euren baliabideen erdiak baino gehiago merkatutik badatoz, irabazi-asmodun erakundeak edo enpresa sozialak izan-

go lirateke. Modu berean, laguntza publikoak jasotzeko aukera eduki arren, erakunde horiek ezin izango dute inoiz euren kapitalaren %50 baino gehiago kapital publikoaren esku utzi, horrela euren independentzia edo *governuz kanpoko* erakunde-izaera galduko luketelako.

Beste muturrean, enpresa sozialak daude, eta, euren azalpenaren arabera, jarduera ekonomiko eutsia garatu behar dute, eta autonomia-maila handiari eutsi behar diote. Enpresa horien baliabideen erdiak baino gehiago merkatuko jardueretatik etorri behar dira.

Alde horretatik, enpresa sozialak enpresak dira ezereen gainetik. Merkatuan dihardutenez, modu berean lortu beharko dituzte euren diru-sarrerak gehienak. Ekonomia sozialaren zati handi batek ere merkatuan dihardu, baina hortik kanpo geratzen diren zenbait elkarte daude barruan. Ekonomia solidarioko eragileek arlo ekonomikoari barik arlo sozialari ematen diote lehentasuna, euren baitan hiru sektoreetako eragileak dituztelako (publikoa, pribatua eta hirugarren sektorea).

Hori dela-eta, irizpide honek ez dizkie argudio bereizgarriak eskaintzen ez ekonomia sozialari ez ekonomia solidarioari, bertako erakunde batzuek merkatuan lortzen dituztelako euren baliabide guztiak. Hala ere, dirulaguntza-politiken menpean dauden erakundeak ere badaude³⁴.

Egiturazko irizpidea

Irizpide honek erakundearen egitura eta egikera zehazten dituzten ezaugarriak nabarmentzen ditu.

Irizpide honen azterketan, erakundearen hainbat eta hainbat barne-elementu kontuan hartu litezkeen arren, langileek erakundeekin duten kontratuzko harremanari baino ez diogu erreparatuko. Parametro horren barruan, errealitate kooperatiboa edo mutuala edukiko genuke mutur batean. Bertan, langilea bazkide-langilea da, eta eskubide osoa dauka erabaki-organoetan eta mozkinen banaketan parte hartzeko. Beste muturrean, ordea, batez ere borondatezko lana hornitzen duten NPOak daude, eta enpresak ez du lan hori inolaz ere ordaintzen.

Bi mutur horien artean, enpresa sozialak egongo lirateke. Nahiz eta borondatezko langileak eduki ditzaketan,

³⁴ Egia esan, oso zaila da irizpide hau modu baztertzailean argi eta garbi ezartzea, erakunde askok aipatutako iturri guztietatik lortzen dituztelako euren baliabideak, proportzioa desberdina izan arren. Adibide bat jartzearren, Euskadiko kooperatibetan, nahiz eta merkatuan bete-betean diharduten enpresak izan, sustapen-politika publikoak dituzte: zerga-baldintzen edo tasen jaitziera. Horrela, abantailak dituzte, gainerako enpresen aldean.

soldatapeko langileak ere eduki behar dituzte, maila txikienean bada ere. Ekonomia solidarioaren unibertsoan, elkartetetik hurbilago dauden erakundeak daude, nahiz eta gehienek merkatuan diharduten eta soldatapeko langileak dauzkaten.

Barne-egituren barruan, beste puntu bat aztertu behar-ko litzateke: mozkinak banatzeko politikak, alegia. Bate-tik, NPOak ditugu, eta, legezko eragozpenengatik, de-be-katuta dute mozkinak sortzea (edo, sortuz gero, bertako

kideen artean banatzea). Bestetik, enpresa sozialak ditugu, eta, azalpenean adierazten den bezala, "mozkinen banaketa mugatua" dute, mozkinak neurri bateraino banatu ditzaketelako, mozkinen maximizazioaren logika ekiditeko. Azkenik, ekonomia sozialeko forma tradizio-nalenak ditugu, kooperatibak, batez ere, eta oso sustrai-tutako printzipioak dituzte: soberakinak banatu ditza-kete bertako bazkide-erabiltzaileen artean, baina ez jarritako kapitalaren arabera, norberak garatutako jar-dueraren arabera baizik.

4. Laburpen-proposamena

4.1. Hirugarren sistema edo hirugarren sektorea


Laburbilduta, beti ez da erraza aipatutako kontzeptuen arteko mugak zedarritzea, eta, batzuetan, muga horiek ez dira batere argiak. Beste batzuetan, ostera, ez dira inon ageri. Laburpena proposatzeko, mundu akademikoan erabili ohi duten alternatibara joko dugu, hau da, hirugarren sektorea proposatuko dugu zenbait kontzeptupean aipatutako erakunde guztiak bateratzeko sektore moduan.

Defournyk argudiatzen duenez (1999), herrialde industrializatuetan gizarte zibil hasiberria dago, eta, ekimen handiz, helburu sozialeko proiektuak jartzen ditu abian, kooperatiba moduan edo irabazi-asmorik gabeko erakunde moduan. Erakunde berri horiek kooperatiba sozialak (Italian,

Portugalen, Espainian...) edo "helburu sozialeko enpresak" dira (Belgika), enpresa sozialak, alegia. Edonola ere, oso desberdinak izan arren, erakunde horiek funtsezko printzipio batzuk partekatzen dituzte borondatezko lanerako gainerako erakundeekin edo autoenplegurako zein autolaguntzarako forma ekonomikoekin.

Sektore handi hori arlo publikotik kanpo dago, izaera pribatukoa delako. Aldi berean, sektore pribatutik bereizten da, bere sorrera-printzipioen artean honako hauexek daudelako: mutualitatea (*self-help*), elkarrekotasuna (*reciprocity*) eta helburu sozialak (*social purpose*). Sektore handi hori, beraz, hirugarren sektorea edo hirugarren sistema izango litzateke. Ideia hori modu grafikoan islatzen da Pearcek (2003) proposatutako ekonomiako hiru sistemen eredu orokorrean.

1. irudia: Hirugarren sektorea, kontzeptu bateratzailea



Iturria: Pearce (2003).

Bere diagraman, Pearcek hiru sistematan³⁵ banatzen du ekonomia, eta, aldi berean, maila espazialak (auzoa, erdian; maila nazionala, eskualde-maila eta nazioarteko maila) erakusten ditu zirkulu zentrokideetan. Euren gainean, sistema bakoitzean diharduten eragile nagusiak jartzen ditu. Lehen sistema enpresa pribatuena da, eta mozkinaren maximizazioaren logika kapitalistapean dago. Bigarrena arlo publikoaren sistema da, eta modu demokratikoan aukeraturako erakunde bidezko plangintzaren eta birbanaketaren logikapean dago. Hirugarren sistema, ostera, mutualitatearen eta autolaguntzaren logikapean dago:

etxeko eta familiako ekonomia, auzokideen ekonomia ez-formalagoa, elkartegintzako zein borondatezko laneko erakunde egituratuak eta ekonomia sozialekoak.

Diagraman, hirugarren dimentsioa ere badago: merkatura bideratutakoa, sektore publikoko plangintzaren logikaren aurrean. Dimentsio horri esker, ekonomia soziala banatu daiteke mutualitatea eta autolaguntza ezaugarri dituen hirugarren sektorearen gainerakotik. Hartara, merkataritza-orientazioko hirugarren sektorearen barruan (ekonomia soziala), erkidegoarekiko zenbait posi-


³⁵ Pearcek "sistemak" terminoa darabil, ohikoagoa den "sektoreak" terminoa erabili beharrean, sistema bakoitza ekonomia kudeatzeko modu desberdinarekin lotuta dagoela adierazteko, neurri batean ekoizpen-modu desberdinak direlako.
³⁶ Jatorrizko diagrama grafikoa zertxobait aldatu da, enpresa sozialen formei buruzko kontzeptu batzuen itzulpenari dagokionez, Erresuma Batuko (eta herrialde anglosaxoietak) testuinguruan baino ez dutelako zentzurik. Horrela, bada, Pearcek (2003), *Community Enterprises* etiketapean (enpresa komunitarioak), 23 enpresa mota juridiko eta formal be-beizten ditu; eta 13 *Social Enterprises* etiketapean.

zio dituzten enpresa sozialak egongo dira, tamaina eta legezko forma desberdinak izango dituzte eta diru-sarrereren iturri zein merkaturako orientazio-maila ugari edukiko dituzte. Horri esker, hirugarren sektorearen, ekonomia sozialaren eta enpresa sozialen euren³⁶ konplexutasunaz eta aniztasunaz ohartzen gara.

Hirugarren sektorearen beste irudikapen dinamiko eta osagarri bat hurrengo grafiko trianguluarrean agertuta-

koa da. Erpin bakoitzean, ekonomiaren hiru printzipio edo zutabeak azaltzen dira (birbanaketa, merkaturak eta elkarrekikotasuna) euren eragile nagusiekin. Hirukia zeharkako hiru lerrok ebakitzen dute, honako faktore hauek mugatzeko: arlo publikoa eta pribatua, arlo formala eta ez-formala eta irabazi-asmoa, irabazi-asmorik ezaren aurrean. Hirugarren sektorea erdiko biribilean dago irudikatuta, ezarritako mugak zabalitzen ditu eta bidegurutzeak sortzen ditu hiru arloetan.

2. irudia: Hirugarren sektorea, kontzeptu bateratzailea



Iturria: Defourny eta Pestoff (2008).

Defourny eta Pestoffek (2008) bidegurutze horietako erakunde-motak aztertzen dituzte. Hartara, zenbait enpresa kooperatibo edo mozkin bila merkaturak diharduten enpresa sozialak egongo liriateke hirugarren sektorearen eta merkaturaren artean. Enpresa sozial horiek, gainera, ohiko enpresa kapitalistek ez beste funtzionamendu-arau batzuk ezartzen dituzte (kapitalagatiko ordainsaria partziala da eta erabakitzeko boterea kideen artean banatzen da). Ere horretan ere, helburu sozia-

lak eta merkataritza-interesak aldi berean bete behar direnean sortu daitezkeen gatazkak azaltzen dira.


Arlo publikoaren eta hirugarren sektorearen arteko bidegurutzean dauden erakundeak hirugarren sektorekoak dira, baina erakunde para-estatalen antzera jarduten dute (hemen ere, enpresa sozialak agertuko liriateke), zerbitzu publikoak hornitzeko orduan. Berritako ere, arlo honetako arriskua/gatazka sortzen da, erakundearen agendaren or-

dez kasuan kasuko erakunde publikoarena ezarri nahi dutenean. Azkenik, elkarrekikotasunak eta komunitateak hirugarren sektorearekin sortutako bidegurutzean azaltzen diren erakundeak boluntarioetan oinarritzen dira. Izan ere, erakundearen funtzionamenduan parte hartzen dute, bertako kideak izan ez arren. Bestetik, elkarrekiko laguntzarako eta erkidegoaren onurarako erakunde sasi ez-formalak ere badaude. Halakoetan, arriskuak/gatazkak sortzen dira, egitura eta lana ezezgonkorak direnean. Erakunde horietan, hain zuzen ere, ez dute estatus formalik, baina zerbitzuak eskaintzen dituzte.

4.2. Ekonomia solidarioa, hirugarren sektoretik haratago?

Aurreko irudikapenak kontuan hartuta, ekonomia solidarioko autore batzuek zalantzan jartzen dute hiruga-

rren sektoreara mugatutako kontzepzioak gizartea eraldatu dezakeela. Hona hemen argudioa: ekonomia solidarioak hiru sektoreak zeharkatu eta lotu egiten ditu, gizarte-aldaketa sakonagoa izan dadin. Hartara, Lewisek eta Swinneyk diotenez (2007), ekonomia solidarioak oso zeregin garrantzitsua ematen dio ekonomia sozialari, jarduera ekonomikoa demokratizatu eta gizarteratu egiten duelako. Hala ere, sektore arteko itunen eta eragin sozial zein politiko handiagoko estrategien bidez ehundu beharko litzateke elkartasuna. Hurrengo grafikoaren arabera, hiru sektoreak gizartea eraldatzeko estrategia orokorraren barruan bateratzen dituen indar-idea izango litzateke ekonomia solidarioa.



5. Azken azalpenak

Azterlan honetan egindako kontzeptu eta nozioen biltzeman, bakoitzaren atzean ezkututzen diren pertsonak, taldeak edo eragileak nabarmentzen saiatu gara autoreok. Gure ustez, garai bakoitzean, eragileek eurek karakterizatu dute ekonomia soziala, hirugarren sektorea edo dena delakoa. Azken batean, edukiz bete dute kontzeptua. Hori dela-eta, oso-oso kontuan hartu beharra dago nola identifikatzen den sektorea eta zer kontzeptu eta balio-printzipioen arabera hartzen duen izena.

Zentzu horretan, ikuspegi metodologikotik, irudikatu nahi duen errealitatearen arabera izan behar da kontzeptua. Ezinbestekoa da kontzeptua bera dinamikoa izatea, azkenak lehenengoa azaltzen jarraitu behar badu. Hirugarren sektoreko erakundeak herri-ekimenean ondorioz sortu dira beti, eta, era autokudeatuan, sortzaileen euren finantza, lan, etxebizitza... arloko premiei eman diete erantzuna. Premiak aldatzen diren neurrian eta arazo sozialen eraginpean dauden segmentuak banatuagoak eta zehatzagoak diren neurrian, erantzunak instituzionalizatu egiten dira, eta ezaugarri desberdinak dituzte. Beraz, kontzeptuak nolabaiteko lasaierak eduki behar ditu, ezinbestean aldatzen den errealitateko egoitzeko modukoak, alegia.

Edonola ere, gure ustez, nabarmendu egin behar da kontzeptuaren malgutasuna ezin dela zehaztasun zientifiko eskagarriaren kalterako izan. Horrela, ezin izango dute esan mundu guztia enpresa soziala edo solidarioa denik marketineko estrategia moduan. Arretaz jokatu behar dugu, enpresa sozialaren kontzeptua enpresa guztietara hedatzeko eta orokortzeko orduan. Izan ere, zenbait enpresa-estrategiaren atzean (erakundeen gi-

zarte-erantzukizuna, esaterako), ezaugarri sozialak barneratzeko interesa dago, gizartearen aurrean duen irudia hobetu nahian. Enpresak gizartean duen irudia hobetzeko helburuak zilegizkoak diren arren, ez datoz bat ekonomia solidarioaren benetako helburuekin, helburu horien irismena eta izpiritu eraldatzailea are handiagoak direlako, inolako zalantzarik gabe.

Zenbait arrisku ere nabarmendu beharko lirateke, gure ustez oso ondorio kaltegarriak eragin ditzaketelako. Enpresa sozialak politika neoliberaletako pribatizazioak legitimatzeko erabili daitezke, eta, azkenean, kostu txikiko zerbitzu sozialak eman ditzakete, horrelako erakundetan lan egiten dutenen lan-ezegonkortasunari esker. Era berean, gure iritziz, enpresa guztiak ezin dira enpresa sozialtzat hartu, eta enpresa horiek ez lituzkete eskaini behar estatuak axolagabekeriagatik ematen ez dituzten hornidura publikoak.

Alde horretatik, ekonomia sozial eta solidarioa bezalako tresnak gizartea eraldatzeko prozesuan eduki dezakeen eraginean oso kontuan hartu beharko da nolako gaitasuna dugun, esanahirik gabe utzi nahi dutenak kontzeptuaz jabetu ez daitezen eta garapen soziala sustatu nahi duen edozein ekintzailletza legitimatzeko erabili ez dadin. Beraz, enpresa sozialari buruzko azalpen bigunegiak saihestu behar dira, oroulerkorak izan nahian, edonolako enpresari uzten diotelako kategoria horretan sartzen. Hori dela-eta, era guztietako ezaugarriak dituzten erakundeak sailkatzeko malgutasunaren eta kontzeptuari bere esanahi eraldatzaileena ez kentzeko behar besteko zehaztasunaren arteko oreka bilatu beharko da.

Bibliografía

- AMIN, A. (2009): "Extraordinarily ordinary: working in the social economy". *Social Enterprise Journal*, 5. alea, 1. zk., 30-49. orr.
- ARRUDA, M. (2004): "L'è emancipació del treball humà". www.xarxaecosol.org/cgi-bin/xs014.asp? idio=eng
- ARRUDA, M. (2005): "Solidarity Economy and the Re-birth of a Matristic Human Society". Paper presented at the Panel on Solidarity Economy of the IV World Social Forum. Mumbai, India, 2004.
- ARRUDA, M. (2005): "A Global Vision of a Solidarity Socioeconomy: Reflections for Discussion" in *Solidarity Socioeconomy as an Integral New System: Global Vision*. Dakar: Workshop on a Global Vision of Solidarity Socioeconomy.
- ASKUNZE, K. (2007): "Economía Solidaria" in CELORIO, G. eta LOPEZ DE MUNAIN, A. (ed): "Diccionario de Educación para el Desarrollo". Ed. Hegoa, Bilbo. 107-113. orr.
- BAREA, J. eta MONZÓN, J. L. (2006): *Manual para la elaboración de las cuentas satélite de las empresas de la economía social: cooperativas y mutuas*, Europako Batzordea, mimeo.
- BORZAGA, C. eta DEFOURNY, J. (ed) (2001): "The emergence of Social Enterprise". Ed. Routledge. London.
- BOUCHARD, M; BOURQUE, G. eta LÉVESQUE, B. (2000): "L'évaluation de l'économie sociale dans la perspective des nouvelles formes de régulation socio-économique de l'intérêt general", Working Paper N° 0013, *Cahiers du CRISES*.
- CHAVES, R. eta MONZÓN, J. L. (2006): *La Economía Social en la Unión Europea*, Europako Lantalde Ekonomiko eta Soziala, mimeo.
- DA ROS, G. S. (2007): "Economía solidaria: aspectos teóricos y experiencias". *Unircoop*, 5. alea, 1. zk., 9-27. orr.
- DEFOURNY, J.; FABREAU, L. eta LAVILLE, J.L. (1998): *Inserción y nueva economía social*, CIRIEC-España, Valentzia.
- DEFOURNY, J. eta DEVELTERE, P. (1999): "Social Economy: The WorldWide Making of a third Sector" in *Social Economy North and South*.
- DEFOURNY, J. eta NYSENS, M. (2006): "Defining social enterprise" in Nyssen, M. (ed): "Social Enterprise". Ed. Routledge. London.
- DEFOURNY, J. eta NYSENS, M. (2008): "Social enterprise in Europe: recent trends and developments". *Social Enterprise Journal*, 4. alea, 3. zk., 202-11. orr.
- DEFORNY, J. eta PESTOFF, V. (ed) (2008): "Images and Concepts of the Third Sector in Europe". EMES Working Paper No. 08/02.
- DIMAGGIO, P. eta POWELL, W. (1983): "The Iron Cage Revisited: Institutional Isomorphism and Collective Rationality in Organizational Fields", *American Sociological Review*, 48. zk., 147-160. orr.
- DOHERTY, B. et al. (2009): "Management for Social Enterprise". SAGE Publications Ltd. London.
- DTI (2002): "Social enterprise: a strategy for success". DTI, London.
- EME, B.; LAVILLE, J-L. eta MARÉCHAL, J-P. (2001): "Economía Solidaria: ¿ilusión o vía de futuro?" Arlesko Udako Unibertsitateko Ekonomia Solidarioari buruzko mahai-inguruan aurkeztutako txostena. 2001eko abuztua.

- ERRASTI, A.M.; HERAS, P. et al. (2002): "La internacionalización de las cooperativas y su responsabilidad social", *Revista de Dirección y Administración de Empresas*. 10. zk. Abendua.
- EVERS, A. eta LAVILLE, J-L. (2004): "Defining the Third Sector in Europe" in Evers, A. and Laville, J-L. (Ed.). *The Third Sector in Europe* (11-42. orr.). Cheltenham: Edward Elgar publishing.
- FAVREAU, L. (2003): L'economie sociale et solidaire: pôle éthique de la mondialisation ? UNESCO. *Economie Ethique*. 4. zk.
- GAIGER, L. I. (2007): "La Economía Solidaria y el capitalismo en la perspectiva de las transiciones históricas" in Coraggio, J.L. (ant.): *La Economía Social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*. Ekonomia Sozialari buruzko irakurgaien bilduma, Altamira, UNGS, Bs. As.
- GUERRA, P. (2004): "Economía de la Solidaridad. Una introducción a sus diversas manifestaciones teóricas" in www.trueque-marysierra.org.ar/biblioteca2.htm
- HAUGH, E. (2004): "A research agenda for social entrepreneurship" *Social Enterprise Journal*. 1. zk. Ed Social Enterprise London. www.sel.org.uk
- LAVILLE, J.L.; NYSENS, M. eta SAJARDO, A. (2001): *Economía Social y Servicios Sociales: los servicios sociales entre las asociaciones, el estado y el mercado: los servicios de ayuda a las personas mayores*, CIRIEC-España, Valentzia.
- LAVILLE, J-L. eta EME, B. (2004): "Renovación y diversidad de la prácticas" in Laville J-L. (comp): *Economía Social y Solidaría. Una visión europea*. 35-50. orr. Altamira argitaletxea. Argentina.
- LAVILLE, J-L.; LEVESQUE, B. eta MENDELL, M. (2007): "The Social Economy: Diverse Approaches and Practices in Europe and Canada" in Noya, A. eta Clarence, E. (2007): *The Social Economy. Building inclusive economies*. Chapter 5. OECD, 2007.
- LEWIS, M. eta SWINNEY, D. (2007): "Social Economy? Solidarity Economy? Exploring the Implications of Conceptual Nuance for actino in a Volatile World". CIRIECek Kanadako Victorian Ekonomia Sozialari buruz egindako munduko lehen biltzarrean aurkeztutako txostena.
- LYON, F. eta SEPULVEDA, L. (2009): "Mapping social enterprises: past approaches, challenges and future directions". *Social Enterprise Journal*, 5. alea, 1. zk., 83-94. orr.
- MARCUELLOS, C.; BELLOSTAS, A. eta MARCUELLOS C. (2008): "Informe sobre las Empresas de Inserción en España". Txostenen 4. seriea. Ekonomia Sozialaren Espainiako Behatokia. CIRIEC-España. Valentzia.
- MARTIN, R. L. eta OSBERG, S. (2007): "Social Entrepreneurship: The Case for Definition". *Stanford Social Innovation Review*, 29-39.
- MARTÍNEZ, A. eta ÁLVAREZ, S. (koord.) (2008): "La economía crítica y solidaria: perspectivas teóricas y experiencias para la construcción de una economía alternativa" in Worldwatch Institute: *La situación del mundo 2008. Innovaciones para una economía sostenible. Informe anual del Worldwatch Institute sobre el Progreso hace una Sociedad Sostenible*. Ed. Icaria. Bartzelona.
- MARTÍNEZ VALLE, L. (2009): "La Economía Social y solidaria: ¿mito o realidad?" *Íconos. Revista de Ciencias Sociales*. No. 34, Quito, mayo 2009, pp. 107-113.
- MONZON, J.L. (2006): "Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del tercer sector", *CIRIEC-España*, 56. zk., 9-24. orr.
- MOULAERT, F. eta AILENEI, O. (2005): "Social Economy, Third Sector and Solidarity Relations: a conceptual synthesis from History to Present", *Urban Studies*, 42. alea, 11. zk., 2037-2053, october, Routledge.
- NICHOLLS, A. (2006): *Social entrepreneurship: new models of sustainable social change*. Oxford. New York: Oxford University Press.
- NICHOLLS, A. (2007): "What is the future of social enterprise in ethical markets?" A social enterprise think piece for the Office of the Third Sector. Cabinet Office of the Third Sector. UK.
- NYSSSEN, M. (ed) (2006): "Social Enterprise". Ed. Routledge. London.
- PEARCE, J. (ed) (2003): *Social enterprise in anytown*. London: Calouste Gulbenkian Foundation.
- PEATIE, K. eta MORLEY, A. (2008a.): "Social Enterprises: Diversity and Dynamics, Context and Contributions- A Research Monograph", ESRC/BRASS Research Centre, Cardiff.

- PEATTIE, K. eta MORLEY, A. (2008b): *"Social Enterprise: The Research Challenge- A discussion Paper"*, ESRC/BRASS Research Centre, Cardiff.
- PERRINI, F. (ed) (2006): *"The New Social Entrepreneurship"*. Edward Elgar. Cheltenham. UK.
- RAZZETO, L. (2000): *Economía de la Solidaridad y Mercado Democrática*.
- RAZZETO, L. (2007): "La Economía de la Solidaridad: concepto, realidad y proyecto" in Coraggio, J.L. (ant.): *La Economía Social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*. Economía Sozialari buruzko irakurgaien bilduma, Altamira, UNGS, Bs. As.
- RIDLEY-DUFF, R. (2008): "Social enterprise as socially rational business". *International Journal of Entrepreneurial Behaviour and Research*, 4. alea, 5. zk., 291-312. orr.
- SALAMON, L. M. eta ANHEIER, H. K. (1997): *Defining the nonprofit sector – a cross-national analysis*, Institute for Policy Studies, The Johns Hopkins University.
- SAJARDO, A. (1996): *Análisis económico del sector no lucrativo*, Tirant lo Blanch, Valenzia.
- SINGER, P. (2006): *"Economía Solidaria: posibilidades y desafíos"*. Rio de Janeiroko Ingeniariei Sindikatuan egindako aurkezpena.
- SEANOR, P. (2006): "Making sense of social enterprise", *Social Enterprise Journal*, 3. alea, 1. zk., 90-100. orr.
- SEANOR, P. eta MEATON, J. (2006): *"Learning from failure, ambiguity and trust in social enterprise"*. Paper presented and the Critical Reflections on Social Enterprise Seminar, Manchester, November.
- THOMPSON, J. L. (2008): "Social enterprise and social entrepreneurship: where have we reached? A summary of issues and discussion points". *Social Enterprise Journal*, 4. alea, 2. zk., 149-161. orr.
- YOUNG, R. (2006): "For What It is worth: Social Value and the Future of Social Entrepreneurship" in Nicholls, A. (2006): *Social entrepreneurship: new models of sustainable social change*. Oxford. New York: Oxford University Press.